

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Egoki aritu herri babesa lortzeko

IÑAKI ALTUNA > 11

«AMODIOAREN ZIEGA»: Bisean
biseko baten kontakizuna
antzerki bidez > 12

2015eko maiatzaren 30a | IX. urtea • 418. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

ETXE ZURIKO EMAKUMEAK

> 4 Jeff SWENSEN | GETTY IMAGES



**Hillary Clinton ez da Etxe Zuriko
atea jo duen lehen emakumea** 04

**Errumanian Karpatoetako basoak
zaintzea exijitu diete agintariei** 08

**Bisean biseko amodioa nolakoa
den kontatzen duen antzerkia** 12

**Auzo-etxea Errezilen, alokairua
ordaintzeko beste modu bat** 17

**Elkarrizketa: Lara Izagirre,
zinemagilea** 22

**Ikusmira: Irudi bete kanpaina,
irudi beste irakurketa** 25

**Igitie, Arratiako Baserritar
Agroekologikoen Elkarte** 27

In fraganti: Esther Lopez 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** Kaleratzen
- 10 **Unai Fernandez de Betoño:**
Etxebizitza... eta lurzorua
- 11 **Iñaki Altuna:** Egoki aritu herri
babesa lortzeko
- 15 **Xabier Mikel Errekondo:**
Hauteskundeak. Azala eta
mamia
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 19 **Maidor Iantzi Goienetxe:**
«Navarrísima» baten gogoetak
- 20 **Gorka Zozia:** Egon
- 21 **Laura Mintegi:** Hitza ez da
delitu
- 30 **Iratxe Esnaola:** Ask.fm eta
gaztetxoak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } **Iratxe Urizar**

Kaleratzen

Gure herrian hauteskundeek utzitako ondorioen gaineko analisiak beste batzuei utzita, Estatu espainolean gertatutakoaz ariko naiz. Zalantza izpirik gabe, gauzarik interesgarri eta zirrargarrienetakoa urte luzez beraien herri eta hirietan agintzen eman ondoren –askotan, gainera, gehiengo absolutuz– hainbat alkatek hauteskundeak nola galdu dituzten ikustea izan da. Aitortu beharra daukat, gainera, kanporatutako horien purrustadak eta guztiz tokiz kanpoko ateraldiak ikusten eta entzuten ibili naizela, ariketa morbosoa huts gisa. Horietako asko estatu mailako hiri handienetako, populatuenetako, alkateak ziren. Euren tokian, hiri eta herrien agintea hartzen hasi dira, pozik eta urduri, aukeratutako zerrendaburu berriak, asko eta asko gainera, gizarte mugimenduetatik datozenak, orain jasotzen duten komunikabideen atentziora ohituta ez daudenak.

Kanporatzeaz hitz egiten hasita, kaleratzeaz hitz egitea beharrezkoa da. Hauteskunde kanpaina honetako gai zentraletako bat izan da, hemen eta han errepikatu dena. Izan ere, kaleratzeen kontrako mugimenduko aurpegi ezagunenetako batek hartu du Bartzelonako alkatetza. Gauzak nola egiten ari ziren ados ez zeuden eragileen arteko akordioak bultzatuta, gehiengoak babestuta atera da aurrera Adau Colau hautagaia. Zerbait bidezkoa ez dela sinisten duenean, emakume solidarioa dela, borrokarako prest dagoela, erakutsi du. Kaleratzeen ingurukoak izan dira Manuela Carmenaren lehen hitzak ere, Erreinuko hiriburuko alkate berria izan daitekeena. Epaila eta abokatu ohia da, eta, beste gauza batzuen artean, kartzelak hustearen aldekoa. Kargu berria hartu baino lehen argi esan du jada bere asmoa desjabetzeen aurkako komisio bat sortzea dela, eta, gainera, norabide horretan hainbat lankide ohirekin hitz egiten hasia dela aurreratu du: helburu nagusia, etxe gabe geratzeko arriskuan dauden familiei erantzuteko “B plan” bat abiatzea. Bere hitzetan, onartezina da kaleratze bat sinatzea kaleratutakoekin zer gertatuko den zehaztu eta aurreikusi gabe. Ezinezkoa da jendea besterik gabe kalean uztea (orain arte

egiten zen bezala, hain zuzen). Sistema finantzarioak berak sortutako krisiaren ondorio latzenetako bati aurre egiteko proposamenak, azkenean, erabakiguneetan.

Andaluziako Junta ere hasi zen bere garaian horretan, desjabetzeen aurkako lege batekin, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak atzera bota berri duena (Rajoy lehendakariak berak, denon interesean aritu beharra duen horrek, jarritako helegite bategatik). Izan da kapitalaren aurka etxebizitza bezalako oinarritzko eskubide bat defendatu nahi izan duen besterik ere. Syrizak gidatutako Greziako Gobernuak bizitzeko diren etxeetan kaleratzeak debekatzeko lege bat martxan jarri nahi izan du (2014ko abenduaren 31 arte izan zutenaren antzekoa), baina Europako Banku Zentralak atzera bota du.

Horrela bada, kaleratzeen aurkako mugimenduko kideek herritarren kontura aberastu diren horiek banan-banan nola botatzen dituzten zeharka begiratu besterik

Kaleratzeen aurkako mugimenduko kideek herritarren kontura aberastu diren horiek nola botatzen dituzten zeharka begiratu besterik ez dut, inbidia puntu batekin. Ingurura begiratuta, izan ere, kaleratze horiek oso merke atera zaizkie batzuei

ez dut, inbidia puntu batekin. Nire ingurura begiratuta, izan ere, kaleratze horiek oso merke atera zaizkie batzuei. Nortzuk diren badakigu, baina dirua irabazten jarraitzen dute inolako lotsarik gabe. Ezer gertatuko ez zaiola ziur dakienaren lotsagabekeriarekin. Salbuespen garrantzitsu eta esanguratsuak ditugu, baina beste asko ez ditugu bota. Horrelako gai mingarri bati zentralitate osoa emango dion diskurtso baten falta sumatzen dut, benetako herri bultzada bat emango diona auziari. Eta kaleratzeen aurkako bozgorailu, ozen, benetako eta konprometitua (eta ez beste hainbeste aldarrikapenen artean galtzen dena) euskal instituzioak hartu dituzten indar ezkerreko eta abertzaleen esku ere izatea. •

ETXE ZURIKO EMAKUMEAK

Clinton lehen emakumezko presidentea izan daiteke, baina baditu aurrekariak

Hillary Clintonek pasa den apirilean iragarri zuen 2016ko hauteskundeetarako bere hautagaitza. Modu horretan guztiek espero zuten albistea berretsi baino ez zuen egin Alderdi Demokratako kideak, jakina baita AEBetako presidente bilakatzeko duen grina. 2008an bertan erakutsi zuen bere asmoa hautagaitza aurkeztuta, baino garaian Illinoisko senatari zen Barack Obama hautagaiak zapuztu zion bere asmoa alderdiko hauteskunde primarioak irabazi eta presidentetzarako hautagai bilakatu zenean.

Obama AEBetako lehen presidente beltza bilakatu zen hauteskunde ostan eta adituak hasi dira jada esaten Hillary Clinton lehen presidente emakumezkoa izango dela baldin eta bere asmoetan aurrera egittea lortzen badu. Lehen galdeke-

 **POLITIKA /** Maider Eizmendi

Hillary Clintonek bere hautagaitza aurkeztu du AEBetako presidentetzarako. Bere helburua lortzen badu, lehen emakume presidentea izango da. Ez da, ordea, bide hori abiatu duen lehendabizikoa, 1872. urtean Victoria Woodhull Etxe Zurirako lehen emakumezko hautagaia izan zen eta. Aurretik edo alboan, pisua duen eredurik ere ez zaio falta Hillary Clintoni AEBetako politikagintzan.

tek Alderdi Demokratako lider izateko aukera handiak dituela nabarmendu dute, bai eta Alderdi Errepublikanoa garaitzeko aukera handiak ere. AEBak, beraz, emakumezko lehen presidentea izateko ateetan daude lehen inkesten arabera.

Obamarekin izan zuen lehian bertan nabarmendu zuen Clintonek emakumeek erabaki pos-

tuetara iristeko dituzten zailtasunak. «Ez gara kristalezko sabai gogorra hausteko gai izan oraingoan, baina, zuei esker, 18 milioi pitzadura eragitea lortu dugu», esan zuen orduan. Oraingo honetan ere beste behin guztia emateko prest agertu da bere senarraren itzaletik irten eta ibilbide propioa egin duen 67 urteko politikaria.

Analista politikoen iritzian Hillary Clintonek AEBetako lehendabiziko emakumezko presidentea izateko aukera handiak ditu.
Darren MCCOLLESTER | AFP

Clintonek jarritako helburuak zein ibilbide izango duen jakin gabe, emakumezkoek AEBetako politikagintzan duten eta izan duten pisuaz hausnartzeko balio du bere saialdiak, bai eta historiaren kontakizunean ezkutuan geratuagatik mugarri garrantzitsuak jarri zituzten emakumeen izenak azaleratzeko ere. Izan ere, Hillary Clinton agian AEBetako lehen presidentea bilakatuko da, baina ez da lehen hautagai emakumezkoa.

1872AN HAUTAGAI

1838an jaio zen Ohion AEBetako politikagintzan ikur den Victoria Woodhull. Bera izan zen Etxe Zurirako lehian sartu zen lehen emakumezkoa. 1872an hautagaitza aurkeztu zuenean emakumeek ez zuten boto eskubiderik ere. Bozkatzeko eskubidea ez zen 1920ra arte iritsiko emakumeentzat. XX. mendearen hasieran hasi ziren mugimendu sufragistaren proposamenak arrakasta izaten. Estatu batzuetan emakumeek boto eskubidea osotasunean lortu zuten, eta, beste hainbatetan, herri mailako hauteskundeetan parte hartzeko aukera. Kalean egin zuten aldarria eta martxak eta mitinak ohikoak bilakatu ziren. 1917rako hamasei estatutan lortua zuten boto eskubidea, baina AEBetako Konstituzioa ez zen 1918ra arte moldatu, Woodrow Wilson presidente zela.

Eskubide gisa ordura arte aitortu ez bazen ere, emakumeek bazuten hautagai gisa aurkezteko aukera eta zirrikitu horri probetxu atera nahi izan zion Woodhullek Equals Rights Party alderdiaren zerrendaburu gisa. Emakumeen eskubideen defendatzaile sutsua, garai hartan emakumeei ezarritako arau zurrunei aurre egin zien bere jardun eta ekintzekin.

Emakumeen boto eskubidearen aldeko mugimenduari lotua, 1871n berak sortutako alderdiaren buruzagitza hartu zuen. Hala, AEBetako presidentetzarako lehen hautagai bilakatu zen. Politikagintzan ez ezik, beste alor batzuetan ere mugarriak ezarri zituen, astero kaleratzen zen egunkari bat sortu zuelako





Ezkerrean, Victoria Woodhull; eskuinean, berriz, Etxe Zuriaren ataria.
GAUR8

BOTEREA ETA MUNDU MAILAKO UMILIAZIOA

Politikagintzan apenas egin zuen biderik, baina AEBetako politika eta emakumeak aipatutakoan ia ezinbestekoa da Monica Lewinsky aipatzea. 1998an egin zen ezagun, Etxe Zurian bekadun gisa lanean ari zela garai hartako presidente Bill Clintonekin izandako aferarengatik. Urteetan isilean egon ostean, berriki kontatu du umiliazio publikoaren kulturaren biktima izan zela. «Interneten erruz mundu guztian bere izen ona suntsituta ikusi zuen lehen pertsona izan nintzen. Teknologiari esker gertatzen den balore epaiketen lasterketak harri birtualak botatzen dituzten pertsonen mobilizazioa eragiten du», azaldu du *ciberbulling*-aren inguruan eskaini duen hitzaldi batean. «22 urterekin nire nagusiaz maitemindu nintzen eta 24 urterekin ohartu nintzen horren ondorio suntsitzailuez». Horrela abiatu zuen pasa den martxoaren 19an Internet bidezko jazarpenaz eskaini zuen hitzaldia. «Orduan eta umiliazio handiagoa, are eta klik gehiago; eta orduan eta klik gehiago, are eta diru gehiago lortzen dute batzuek publizitatearen bidez. Sufrimenduaren kontura ari gara dirua egiten», aipatu zuen.


Asko hitz egin zen 90eko hamarkada amaieran Lewinskyren inguruan eta orain berak hartu nahi izan du hitza. Askok txalotu dute bere ausardia. «Clintonekin izan nuen harremana adostua izan zen, jazarpena bere botere posizioa defendatzen hasi zenean jasan nuen... Bere aldekoak, politikoak eta komunikabideak, ni seinaltzeko gai izan ziren», salatu du. Presidenteak Lewinskyrekin izandako harremana ukatu egin zuen hasiera batean, azkenerrak, erabat presiopean, onartu egin behar izan bazuen ere. Ordurako Kenneth Starr fiskalak harremanaren nondik norakoak jasotzen zituen 400 orrialdeko txostena ezagutzera emana zuen eta Lewinskyren irudia lur jota zen.

eta Wall Streeten broker gisa ari-tu zelako bere ahizparekin batera sortu zuen marka batekin.

Presidentetzarako egin zuen bidea, ordea, laburra izan zen, hauteskundeak egin aurretik ahizpa eta biak espetxeratu egin zituzten eta. Sortu zuten astekar-ian kaleratutako artikulu bat izan zen aitzakia. Argitalpenean emakumeen boto eskubidea aldarrikatzen zuen Woodhullek eta garaiko gizartearen hipokre-sia salatzen zuen. Oihartzun handia lortu zuen, esaterako, Henry Ward Beecher apaiz pro- testantearen kontra argitaratu zuen artikuluak. Agindu moral ugari emanagatik, adulteriogi- lea zela salatu zuen artikuluan, bere hipokresia azaleratuta. Ga- raiko agintariei, noski, ez zi- tzaizkien batere gustatu artiku- luaren tonua eta edukia eta bi ahizpak espetxeratzeko agindua eman zuten. Horregatik ezin

Barack Obama AEBetako lehen presidente beltza bilakatu zen eta analista politikoak hasiak dira dagoeneko Hillary Clinton lehen presidente emakumezkoa izango dela esaten

Victoria Woodhull izan zen Etxe Zurirako lehian sartu zen lehen emakumezkoa. 1872an, hautagaitza aurkeztu zuenean, emakumeek ez zuten oraindik boto eskubiderik ere



izan zuen lehen saiakera hura gauzatu, baina ez zuen etsi eta beste bi aldiz ere aurkeztu zen hautagai gisa hauteskundeetan.

Victoria Woodhullen ibilbidearen pasarteak jaso dituztenek bere bizimodua ere nabarmendu dute. Hainbat anaia-arreben artean –iturri batzuek zazpi diote eta beste batzuek hamar– bosgarrena izan zen Woodhull. Ama igarlea eta aita sendagai saltzailea zituen, eta hamabost urte baino ez zituenean ezkondu zen Canning Woodhull sendagai saltzailearekin. Bi seme-alaba izan zituen berarekin baina bikote harremana infernua izan zen Victoriarentzat, senarrak behin eta berriz jipoitzen zuelako. Dibortzioak emakume baten izen ona erabat suntsi zezakeen garai batean, ausardiaz jokatu eta pausoa eman zuen Victoriak. 1866an berriz ezkondu zen, James Harvey Blod koronelarekin. Britainia Handian hil zen 1927an.

«IZAR IDEOLOGIKOA»

Hillary Clintonek Victoria Woodhull aurrekari du, eta, Elizabeth Warren, alderdikide. Baita arerio gogor ere primarioetara

Elizabeth Warren
Massachusetts estatuko
senataria da, eta Obamaren
aholkulari gisa aritu da
azken urteotan.
Win MCNAMEE | AFP

Elizabeth Warren demokratarena da AEBetako politikagintzan letra larriz idazten den beste emakume izenetako bat. Alderdi Demokrataren «izar ideologikoa» dela diote hainbat adituk

Gero eta sona handiagoa hartzen ari den politikaria da Warren. «Time» egunkariak eragin handiena duten munduko ehun emakumeen zerrendan sartu du bi alditan

aurkeztuko balitz. Izan ere, Warrenena da AEBetako politika-gintzan letra larriz idazten den beste emakume izenetako bat. Alderdi Demokrataren «izar ideologikoa» dela diote analista politiko hainbatek eta presidentetzarako hautagaitza aurkezteko duen aukera ez du baztertzen prentsak. 2013tik Massachusetts estatuko senataria da, eta Obamaren itzalean eta alderdiko ezkertiarren babesean gero eta sona handiagoa hartzen ari da. “Time” egunkariak eragin handiena duten munduko ehun emakumeen zerrendan sartu du bi alditan.

19 urterekin ezkondu zen Warren eta jada bi haurren ama zela amaitu zituen Zuzenbide ikasketak. Bere haurtzaroa ez zen xamurra izan. Aitak lana galdu zuen bihotzeko baten ondorioz gaixotu zenean, eta, hori dela eta, etxean lan egiten zuen amak lan merkatura jo behar izan zuen hipotekatuta zuten etxea ez galtzeko. Horrek, zenbaiten ustez, erabat baldintzatu ditu Warrenen lehentasunak eta ibilbidea politikoa. Doktoretza osatuta, zorpetze pribatuan eta familien porrot

ekonomikoan espezializatu zen. Bere argitalpenek ez zuten son handirik lortu 2008an krisia lehertu zen arte. Orduan familien egoera larriaren eta bankuen jokabidearen inguruko eztabaida berpiztu egin zen AEBetan, eta Warrenek esandakoek indarra hartu zuten. Obamak berak finantza produktuen kontsumitzaileen babeserako erakundea sortzeko Warrenen proposamena hartu eta Kontsumitzaileen Finantza Babeserako Bulegoa sortu zuen. Erakunde horrek, hain justu ere, gertutik zaintzen du Wall Streeten jarduna.

WALL STREET ASTINTZEN

Warrenek behin baino gehiagotan salatu du ekonomiaren joana eta sarri aipatu du «jokoa trukatuta» dagoela: «Enpresa handiek eragin handiko pertsona asko kontratatzen dituzte milaka milioiko abantaila fiskalak lortzeko, eta Kongresuan dituzten lagunak ere jokoaren arauak beren alde jartzeko baliatzen dituzte. Bien bitartean, gogor lan egiten duten familiei esaten zaie beren seme-alabentzat amets umilagoak izanda bizi beharko dutela», nabarmendu izan du Warrenek.

Bankuak ere gogor jo ditu. «Bankuek Kongresua presionatu zuten iruzur egin eta abantaila legalak lortzeko. Ondoren erreskatatu egin zituzten, eta, orain, lehen baino aurrezki gehiago dituzte. Familia batek hipoteka ordaindu ezin duenean kalean geratzen da; bankuek legeak betetzen ez dituztenean inor ez dute atxilotzen eta mandatari guztiek euren soldata izugarriak mantentzen dituzte», salatu zuen iaz txaloka erantzun zion jendetzaren aurrean.

Alderdi Demokratako ezkertiarrenen begiko den Harvard Unibertsitateko zuzenbide irakasle honek behin baino gehiagotan esan du ez duela presidentetzarako hautagaitzarik aurkeztuko. Bide horri ekiten ez badio ere, Hillary Clintonen kampaia eta proposamenak baldintzatzeko balio izan du Warrenen jardunak, politika aurrerakoia-goak bultzatzeko, alegia.



Narinder NANU | AFP



IKUSMIRA

MONTZOIAREN EURIAK NOIZ IRITSI ZAIN BEROALDI HILGARRIA INDIAN

Dagoeneko mila eta bostehunetik gora dira Indiako hegoaldea kiskaltzen ari den beroaldi izugarriak eragindako hildakoak. Beti moduan, kaltetuenak kale gorrian bizi diren txiroak, etxetik irte-terik ez duten adinekoak eta eraikuntzan eta errepidetan lan egiten dutenak izaten ari dira. Temperatura altuek bortitzen jo duten Andhra Pradesh estatuan beroaren eraginez hildakoen kopurua bikoiztu egin da iazko datuekin alderatuta, eta egoera la-tza da ondoko Telangana estatuan eta New Delhi hiriburuan ber-

tan ere. Indian ohikoak diren argi mozketek arazoa larriagotu egin dute. Gobernuak jai egunak hartzea debekatu die medikuei. Izan ere, 45 eta 48 gradu arteko tenperaturak iragarri dituzte as-teburuan ere, gutxienez ekainaren 2ra arte. Ordurako espero dira montzoiak ekarriko dituen eurite handiak. Bitartean hildakoen kopuruak gora egingo du ziurrenik eta indiarrek nola edo hala aurre egin beharko diote beroaldiari, baita argazkian bezala «rickshaw»-ak hozkailu bihurtuz ere. David Lazkanoiturburu

ERRUMANIA

Milaka herritarrek Karpatoetako basoak zaintzeko exijitzen diete agintariei

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

Europar Batasunean baso birjin gehien dituen herrialdea da Errumania, baina natura ondare hori galdu egingo da legez kontrako baso-soiltzeari amaiera ematen ez bazaio (ordu bakar batean hiru hektarea suntsitzen dituzte gaur egun, ekologisten arabera). Arrisku horri aurre egiteko neurriak exijitu dituzte milaka herritarrek kalean.

Errumaniako hirietan milaka herritar elkartu dira azken asteotan herrialdeak jasaten duen baso-soiltzeari aurre egiteko exijitzeko. Legez kontrako zuhaitz botatzea eta Austriako Schweighofer konpainiak omen duen «monopolioa» salatu zituzten manifestariak.

Kalera protesta egitera irten diren herritarren arabera, aipatu konpainiak legez kontra botatako arbolak ere erosi egiten ditu. «Bat eginda, basoak salbatuko ditugu», oihukatu zuten manifestariak Bukarest hiriburuan. Baita «Schweighofer kanpora» ere.

Herrialdeko hiru koloreko bandera hartuta zeharkatu zituzten hiriburuko kaleak, Gobernuaren egoitzaren aurrean gelditu aurretik.

Catalin Tobescu Nostra Silva elkarteak presidenteak nabarmendu zuenez, «ingurumenari dagokionez, legez kontrako zuhaitz mozketak da herritarren kezkarik handiena, inkesta guztiek azaltzen dutenez».

BASOETAKO RADARRA

Arlo horretan zertxobait aurreratu da Errumanian, Catalin Tobescu ekintzailearen arabera: «Iazko azken asteetan abian jarri ziren basoetako radarrek egur garraio guztiak ikuskatzen dituzte eta irregulartasunen berri ematen dute. Horri esker legez kontrako mozketek %50 egin dute behera. Asko murriztu da mozketen fenomeno, baina sistema bera hobe daiteke emaitza hobekiago lortu ahal izateko».

Europar Batasunean baso birjin gehien dituen herrialdea da Errumania. Baina azken urteotan kalte handia egin zaio ondare horri: hogeitazko urte eskasetan 80 milioi metro kubiko egur moztu dira legez kontra, 5.000 milioi euroko kalteak eraginez, txosten ofizial baten arabera. Ipar-mendebaldeko Cluj-Napoca hirian mila lagun elkartu ziren orain hamabost egun Austriako Schweighofer konpainiarekiko agintarien «konplizitatea» salatzeko. Aipatu enpresak 470 milioi euro fakturatu zituen 2013an, sektorea erabat mende- an edukitzeko.

KAMARA EZKUTUA

Gratiela Gavrilescu Errumaniako Ingurumen ministroak agindu izan du Austriako konpainiaren kontu-ikuskapena egingo duela. Manifestariak, legez kon-

tra egurra erosteaz gain, Errumaniako merkaturaren «monopolio bat» osatu izana leporatzen diote.

Ministroaren adierazpenak iritsi dira EIA Ingurumenaren Ikerketarako Agentzia izeneko elkarteak bideo esanguratsu bat argitara eman eta gero. Kamara ezkutu baten bitartez, EIAko ekintzaileek Schweighofer konpainiako arduradunak grabatu

zituzten, legez kontrako egurra erosten ari zirela. Saltzaileari hobariak agindu zituzten konpainiako ordezkariak.


Konpainiak berak esan du dena gezurra dela, jakina, beraiek «Errumaniako legedia erabat errespetatzen» dutelako.

BASO KODEA

Ezin zuten kontrakoa esan, Errumanian negozio ezin hobeak

Beheko irudian, Bukaresteko herritarrek baso-soiltzearen aurkako protesta batean. Eskuinean, Karpatoetan gero eta ohikoagoak diren irudiak. GAUR8





egiten segitzeko asmoa baitaukate: horretarako zabaldu berri dute bosgarren lantegia, Catalin Tobescu Nostra Silva elkarteko presidentek esan duenez.

Parlamentua mozketak murritztea helburu duen lege bat eztabaidatzen ari da, Baso Kodea. Holzindustrie Schweighofer konpainiak Gobernuak proposatutako lege proiektuaren aurka helegitea aurkeztu zuen, baso baten %30era mugatzen baitu enpresa batek moztu dezakeen zuhaitz kopurua, eta hori ez da konpainiaren gustuko.

«Badakigu Baso Kode berriak ere bere gabeziak dituela, baina lehenbailehen onartu behar da, horrenbeste zuhaitz bota ez dezaten», adierazi du Crisanta Lungu Errumaniako Greenpeaceko ekintzaileak.

ERRUMANIAKO «BIRIKAK»

Karpatoak dira Errumaniako «birikak», bertakoen arabera. 1.500 kilometroko luzera duen mendikateak 8,5 milioi hektarea baso zituen 1989an (herrialdeak duen azaleraren %38), aro komunista bukatu zen garaian. Orain, berriz, 6,3 milioi hektarea (Errumaniako azaleraren %26,7)

baino ez ditu. Beraz, basoek beren azaleraren %26 inguru galdu dute.

EcoAssit gobernuz kanpoko erakundeak emandako datuen arabera, baso horietan 6.000 hartz, 1.500 katamotz eta beste abere asko bizi dira. EIA Ingurumenaren Ikerketarako Agentziak jakinarazi du baso-soiltzeak mehatxatutako eremua Europa osoan bioaniztasun gehien dutenetako bat dela.

Hedabideek herritar askoren esperientziak eskaini dituzte azken asteotan. Ionut Dragomir 50 urteko gizonak Karpatoetan dagoen Busteni herrian etxe bat erosi zuen, Bukarest hiriburuko zalaparta atzean utzi eta lasaia go bizitzeko asmoarekin. Turistentzat gidari lana egiteko asmoa zuen. Baina deforestazioak mehatxupear dauka bere ogibide berria. Bere etxetik gertu dauzka Bucegiko parke nazionala, Piatra Craiului mendikatea eta Peles izeneko gaztelua, Errumania osoan bisitari gehien hartzen dituen lekua. «Tamalez, paisaia dotore eta paregabe honetako basoetan zuloak ikusten dira, legez kontra zuhaitzak bota dituztenek utzitakoak», espli-

katu du Dragomirrek. Bere ustez, bertako herritarrek botatzten dituzte zuhaitz horiek, «negu luzeari aurre egin ahal izateko egurra behar dute-eta».

ROMSILVA KONPAINIA

Baina beste herritar batzuek zuhaitzak bota eta egurra saldu egiten dute, gidariak kontatutakoaren arabera. «Eta basozainek ezin dute gauza handirik egin, oso gutxi baitira eremu handi hau zaintzeko, eta, gainera, oso gutxi kobratzen dute, hilean 300 euro inguru», Ionut Dragomirrek jakinarazi digunez.

Greenpeace nazioarteko erakunde ekologistak egin dituen kalkuluen arabera, orduero hiru

Europar Batasunean baso birjin gehien dituen herrialdea da Errumania. Azken hogeit urteotan kalte handia egin zaio ondare horri: 80 milioi metro kubiko egur moztu dira legez kontra

Kamara ezkutu baten bitartez, EIAko ekintzaileek Austriako Schweighofer konpainiako arduradunak grabatu zituzten legez kontrako egurra erosten ari zirela

hektarea baso inguru suntsitzen dira. Fenomenoaren inguruko 50 salaketa inguru egiten dira egunean. Ekologistek Romsilva konpainia publikoari leporatzen diote egoeraren erantzukizuna, Errumaniako basoen erdiaren ardura duen enpresak «baliabideak atera beste helbururik ez duelako». Basoa zaindu beharko luketenek ez dute batere laguntzen, Greenpeacekoaren ustez. «Gorj probintziako 500 biztanleko herri txiki batean, funtzionarioek herritarrei esan zieten hobe zela zuhaitzak botatzea, turistak erakartzeko bertako edertasuna baliatzea baino», Crisanta Lungu salatu duenez.

ARISTOKRAZIA NAHASTUTA

Romsilva konpainia publikoaren esku ez dauden basoak jabe partikularren eskuetan daude. Baina kasu horretan ere zantza gehiegi dago, ez baitago batere garbi Estatuarenak ziren eremu horiek nola eskuratu zituzten jabe berri horiek.

Ikerketa ofizial bat abian da eta nahastuta dauden pertsonen artean Paul Errumaniako printzea eta Victor Ponta lehen ministroaren aitaginarreba ageri dira.



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Etxebizitza... eta lurzorua

Zenbait kontu arkitektoniko eta urbanistiko interesgarri bizi izan ditugu Hego Euskal Herrian, iragan berri den udal eta foru hauteskundeetako kanpainan: Bilboko EH Bilduren proiektu eta infografia dotoreak, Donostiako EAJren alkategai Eneko Goiaren propaganda-liburu ederra, UPNren larrialdia Baztango Aroztegia Plan Sektoriala korrika eta presaka aprobatuta uzteko, Gasteizko gazteriaren duintasuna eta irudimena kriminalizazio politikoa espazio publikoan ere salatzeke...

Autokonplazientziatzko ohiko mitinez haragoko hirigintza-hitzaldi bat ere nabarmen daiteke: Gasteizko Zuberoa plazan EH Bilduk antolatu zuena, zeinetan Felix Gonzalez San Vicente eta Marian Beitialarrangoitia luze eta zabal aritu baitziren bizitegien afera korapilotsuari buruz, etxebizitzaren lege proposamenaren karira.

Felixek Gasteizko azken urteotako hirigintza inbaditzaile eta espekulatiboari erraiak atera zizkion, EH Bilduren militanteek puntuz puntu osatutako programa urbanistikoa azalduz. Bi asmo nagusi xehatu zituen: oraindik urbanizatu ez diren sektore urbanizagarrien desklasifikazioa (bost sektoretan banatutako 4.356 etxebizitzari buruz hitz egiten ari gara, alajaina!), eta alokairu sozialeko etxebizitza-parke publiko baten osaera. Azken hori lortzeko bide interesgarri bat proposatu zuen: adin nagusiko pertsonen zuzkidura-etxe egokituak eskaintzea, haien jabegoko pisu zaharrak gazteen-tzako alokairu sarean jartzearen truke. Mekanismo horren gakoetako bat zuzkidura-etxeen kokapenean legoke: adineko

pertsonak auzoan bertan gelditzea litzateke ideia, haien ohiko ingurunetik irisgarritasun –eta autonomia– arazoengatik derrigorrean ihes egin behar ez izateko, askotan gertatu bezala.

Marianek Eusko Legebiltzarrean maiatzean bertan bukatu berri den etxebizitzaren lege proposamenaren batzorde txostengilearen berri eman zuen. Lege proposamen perfektua izan ez arren, aurrerapauso sozial handia ekar dezake espekulazioak itotako etxebizitzaren sektore ekonomiko garrantzitsura. Eskubide-izaeraren aplikazioari, alokairu publikoaren aldeko apustuari eta etxe hutsen arazoari aurre egiten saiatuko da legea, eta, hortaz, ulertzekoa da EAJ eta PP neokontserbadoreak alde batera gelditu izana. Beno, egia esan, ez dira bazterrean guztiz gelditu, Erkoreka apokaliptikoari entzun egin behar izan baitiogu legeak mundu mailako dei-efektua sortuko duela!

Horregatik, ezkerrera okertu den balantza berriro ere eskuinera orekatzen saiatuko dira EAJ eta PP, etxebizitzaren formularen funtsezkoa den beste aldagai bat gehiago liberalizatzen: lurzorua. *Think tank* guztiak dagoeneko martxan jarri baitituzte 2006ko Madrazoren lurzoru legetik babes publikoko etxebizitzetarako erreserba-kopuru minimoak jaitsi edo are kentzeko.

Argi, beraz: arazoa ez da soilik konponduko Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean eraginez; Ingurumen eta Lurralde Politika Saila ere kontuan hartu behar da. Clinton parafraseatuz: «lurzorua da, ergela!». •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Egoki aritu herri babesa lortzeko

Boto kontaketa matematikoa ez ezik, politikoa eta, areago, emozionala ere bada, eta hiru ikuspuntuek ez dute, baitezpada, bat etorri behar, are gutxiago aurreiritzietatik abiatuz gero. Joan den igandeko hauteskundeetan, gainera, korapilatsuagoa da irakurketa tokian tokiko errealitateak elkarren artean alderatzen saiatzen bagara, egoera arras ezberdinak baitaude. Ezin, bada, balorazio borobil-borobilik egin, nahiz eta, beharbada, azken urteotan abiarazitako prozesu politikoari zer ekarri dioten edo zer kendu dioten ez den behar beste aztertu, seguruenik arreta gune distiratsu askotxo dagoelako, baita Madril aldetik datozenak ere, urte amaierako hauteskunde orokorren itzalpean.

Euskal Herrian indarrean den egitura juridiko-politikoak inoiz baino babes gutxiago jaso du, eta horixe izan zen, hain zuzen ere, fase berri bat irekitzeko arrazoi nagusietarikoa. «Erregimenak» ez du herri babesik. Errealitate hori Nafarroara iritsi da eta, beste adibide bat jartzeagatik, Araban ere aldaketa handia egon da urteotan. Hain zuzen, negoziazioaren estrategiaren ahulgune nagusietarikoak hortxe zeuden; mahai gainean jartzen ziren aterabideak, Gobernuaren ezezkoarekin ez ezik, lurralde batzuen herritarren nahiek eragiten zituzten oztopoekin ere topatzen ziren.

Halere, orain lau urte ez bezala, egungo egoerarekin bat ez egiteak ez du berarekin beste egoera batera joateko apustu argirik indartu. EAJren garaipenak horixe azaldu du, eta emaitzak ez aurrrera ez atzera aritzeko jelkideen ohiko jokabidea errazten dute. Ez da soilik erritmo arazo bat (mantsoago joan behar izatea), mami arazo bat ere bada (norantz joan beharra dagoen). Kataluniako prozesua moteltzen bada, arazo hori handitu egingo da, EAJko burukideek bete-betean asmatu dutela sentituko dutelako. Gogoratu behar da horko batzuentzat EAJk egin dituen akatsik larrienak Lizarran sartzea eta Ibarretxeren apustua izan direla.

Aurreko hauteskundeetan, Bilduren fenomenoak, proiektu politiko zehatzaz harago, abiatutako garai berria eta prozesuaren nolaketasun eraldatzailea indartu zituen, gatazkaren konponbidearen beharra sendotzeaz gain. Aieteko atarian geunden. Horregatik, oraingo emai-

tzak ezin positibotzat jo. Horrek ez du esan nahi EH Bilduk ordezkatzeko duen alaketaren apustua oinarri elektoralik gabe geratu denik, ezta gutxiagorik ere. 300.000 bozoko poltsa ez da nolanahikoa. Eta esan beharra dago EH Bilduko bozeramaileak datu horren atzean ezkutatu ez izanak eta arazoak aitortu izanak irakurketa positiboa merezi dutela. Hauteskunde emaitzak prozesuaren erronkaren arabera baloratu behar dira, eta erronka fase honetan egundokoa da.

Horrenbestez, ezkerreko independentismoak egindako berritze estrategikoa –egoera aldatu zuena eta aukera politiko berriak ekarri dituen– amaitu gabe dagoela ondorioztatu daiteke, bigarren astinaldi baten zain. Beharbada, denean ez dira hain azkar aritu. Antolakuntza eredua erronka dute oraindik; adibidez, hil ala biziko garrantzia omen duen Fronte Zabala erabat borobildu gabe dutela aitortzeak azaltzen duenez. Eta garai berriaren tamaina-

Ezkerreko independentismoak egindako berritze estrategikoa –egoera aldatu zuena eta aukera politiko berriak ekarri dituen– amaitu gabe dagoela ondorioztatu daiteke, bigarren astinaldi baten zain

ko kultura politiko berria zehaztu beharra dute estrategia aldaketa bururaino eraman nahi bada.

Gizarteari begira egoki aritu beharra dagoela ere ondorioztatu beharko lukete. Egoki aritzea ez da, nolanahi ere, soilik erritmo –azkar edo motel– kontua. Estrategia aldaketa teorizatu zenean, gako nagusietakoa herri babesa zela nabarmendu zen, baina, beharbada, oraindik zenbaitetik, «eskubideak ez dira bozkatzeko» ideiarik gehiegi tiraka, ez dio edozein eraldaketa proiektuk behar duen herri onarpenari behar beste garrantzirik eman.

Ezin dugu pentsatu, ez delako egia, gipuzkoarrak zaborzale, euskararen etsai, insolidario... kuadrilla bat direnik. Eredua eraldatzaileak gauzatzeko eremu egokia da, oso egokia. Balore franko ondo txertatuak ditu eta aurrera egiteko indarra du, Euskal Herri osoak bezalaxe. Ez, soluzioa ez da herriak dimititzea. •

«AMODIOAREN ZIEGA», BISEAN BISEKO BATEN KONTAKIZUNA ANTZERKI BIDEZ

Maidar Iantzi Goienetxe

Bisean biseko baten elkartzen diren Aitor eta Mirenen istorioak antzokiak bete ditu, euskal publikoa ukituz eta ikusleen barrenean zerbait mugituz. Lauka Teatroak hamahiru emanaldi egin ditu oraingo, harrera beroa jasoz. Hurrengo «boloak» Elorrión eta Oiartzunen dituzte.

Gernika-Lumoko Lizeo Antzokiko muxuek olio usain gozoa utzi digute. Joana Ocaña agertu zaigu lehenbizi, aurpegia koipeztatu berri, eta haren atzetik, oihala zeharkatuz, Nazaret Froufe, Urki Muguruza eta Eneko Sagardoy kideak. Antzezten hasteko egun osoa gelditzen zaie oraindik, baina goizean goiz etorri dira dena mimos prestatzeko, argiak, soinuak, atrezzoak, beren buroak... GAUR8rekin solasaldi lasai bat izateko tarteak hartu dute, koltxoneta gainean jarrita.

Ocaña eta Sagardoy gurekin geldituko dira; Muguruza eta Froufe, aldiz, sartu-irtenean ibiliko dira, talde artistikoarekin batera aretoa teknikoki egokitzen ari direlako. «Antzerkiak ere badauka ikusten ez den asko».

Aitor preso dago. Miren bikotea bisitan doakio. Aurrez aurreko bisita da, bisean bisekoa. Konturatu gabe doa denbora. Amodioa dute eginkizun, baina gorroto dituen hark prestatu die hitzordua. Noiz arte irauten du maitasunak? Zergatik besarkatzen dute elkar maitaleek? Nola aldatzen dira ametsak barruan eta kanpoan? Eta beldurrak? Maitasunaren haririk hauskorrenak eta indartsuenak agerian gelditzen dira amodioaren ziega honetan.

Horixe da obraren argumentua. Zirrikitu bat irekitzen dute ziega batean, eta intimitatea publiko bilakatu, gatazkaren barreneko istorio bat kontatzeko, ez kartzela bizi duten bikote guztiena, baizik eta batena, Aitor eta Mirenena. Horrek aunitz arintzen die karga, ezin baitute errealitate guztiaren zama gainean eraman. Lana mugatuko lieke. Gainera, bizipenak bakoi-tzarenak dira eta ezinezkoa da denak jasotzea. Baina, mapa handi baten zatitxo batekin, humanitatea erakusten dute.

BISITATIK ZUZENEAN EMANALDIA IKUSTERA

Antzezlanak prestatzen ari zirenean egoera beren azalean sufritu duten lagunekin kontrastatu zuten, fidelak izaten ari ziren eta errealitatera hurbiltzen ari ziren jakiteko. Gero, preso egondakoek zein senideek ikusi dute eta negar ugari egin dute. Identifikatuta sentitu dira eta antzezleentzat polita izan da euren ahotik «horrela da» aditzea.

Obra «gordinegia» iruditu zaiola ere erran die bikotekidea preso duen lagun batek, bisitatik zuzenean Durangoko emanaldira etorrita. Ez dira joan egoerak «ez



«Amodioaren ziega» antzezlanean bi pertsonaia daude, baina lau aktore. Bikotea bikoiztu egiten da: batek, berdez jantzita oholtzaren erdian, bihotza irudikatzen du, eta, bertzeak, arropa granatearekin kanporago dagoenak, burua. Itziar BASTARRIKA | LAUKA TEATROA

bortitzegi ez *lightegi* erakustera», eta «gaia elegantziaz tratatu izana» estimatu diete ikusleek.

Xabier Mendigurenek duela hamar urte idatzi zuen liburua du oinarri antzezan. Testua ia bere horretan utzi dute eta Mendigurenek berak gaiaren inguruan idatzitako poema batzuk gehitu dizkiote. Beste eszena batzuk inprobisazioetik ateratu dira. Gaurkotasan zertzeladak sartu dituzte, adibidez krisia, Willis Drummond musika taldea edo WhatsApp aplikazioa aipatzen dituzte, «hamar urtetan, zoritxarrez, arazoa ez delako aldatu baina beste gauza batzuk bai». Eguneroko gauzak txertatzea obra euren egiteko erabili duten baliabidea da. Bikote baten egunerokotasuna izan liteke ziega batean ez baleude. Pertsonen izaera adierazten dute. Ihes egiteko planak egiten dituzte, eta etorkizunean egingen dutena amestu.

Antzezleek diotenez, bisitek kutsu sinbolikoa dute, batzuei urrun dagoen zerbait iruditzen ahal zaie, baina egunerokoa kontatzean, pertsonak direla

konturatzen dira. «Berezia bizi ez dugu nontzat da, baina haien zentzuan egunerokoa da». Gaiak erabateko gaurkotetasuna du, baina orain arte ez da oholtzara eraman.

Maitasunaz eta loturez hitz egiten da, eta, «zoritxarrez, hain errotuta dugun maitasun erromantiko hori» berresten da. Batek bertzearen beharra du. Egia da kasu berezia dela, baina kalean bertan ere kartzelak topa ditzakegu. Maitasunak irabaz diezaioke kartzelari? Harreman batek iraun dezake hor?

ERLAZIOA KOLOKAN JARRIZ GERO...

Joana Ocaña aipatu du zenbat begi dituen gainean batek kalean harremana mantentzea ala ez erabakitzerako orduan, berau kolokan jarritz gero. «Zer moduz Aitor?», galdetzen diote Mireni kanpoan. «Bisitan joango zara?». «Nork galdetuko du negatiko?», pentsatzen du neskak. Bat ez da ausartzen harremana zalantzan jartzera.

Oihana Etxebarrietak tesia landu zuen espetxeko harreman afektibo eta sexualen inguruan. Bikotekidea kartzelan izan



zuen eta lagun batek galdetu zion zinez harremana aurrera eramateko gai zen. Momentuan mindu egin zuen Etxebarrieta harremana zalantzan jartzeak, baina gero izugarri eskertu zuen lagunak hori galdetzea.

Moztuko balu neskari ze mezu iritsiko litzaioke? «Nola egin diozu hau?» erranen liokete beharbada, apurketak drama gisa hartzen direlako. “Amodioaren ziega” lanean teatroaren bidez ikusarazten dute egoera, gizatasunez eta duintasunez. Edonor etor daiteke ikustera, Gernikako Lizeo Antzokiaren atarian, kaleko loreontzi erraldoien ondoan argazki saioa egiten ari direla gauean emanaldia eskainiko duten antzezleak diren galdetu dien emakumea kasu.

KONDAIRAREN JOLASA

“Chambre d’amour” Angeluko kobazuloaren kondaia erabiltzen du baliabide gisa Xabier Mendigurenek bere liburuan. Bi maitalaren istorioa da. Egun batean, urak espero baino azkarrago igo eta preso gelditu ziren elkarrekin egoten ziren

Lehenengo irudian, ezker-eskuin, Nazaret Froufe, Urki Muguruza, Joana Ocaña eta Eneko Sagardoy, Gernika-Lumoko Lizeo Antzokiaren aurreko kalean. Bigarren argazkian, antzezpeneko une bat.

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS - Itziar BASTARRIKA | LAUKA TEATROA

Xabier Mendigurenek duela hamar urte idatzi zuen liburua du oinarri antzezlanak. Mendiguren beraren poema batzuk ere gehitu dizkiote. Gaiak erabateko gaurkotasuna du, baina orain arte ez da taula gainera eraman

Bi pertsonaia daude, baina lau aktore. Bikotea bikoiztu egiten da. Batek bihotza irudikatzen du eta bertzeak burua. Jolas horretan nahasten dira pertsonaiak, hori baita bizitza, bi argi horiek piztu eta itzaltzen ibiltzea

haitzuloan, bisean bisekoan batzen den bikotea bera bezala. “Amodioaren Ziega” lanean ere bi pertsonaia daude, baina lau aktore. Bikotea bikoiztu egiten da: batek, berdez jantzita oholtzaren erdian, ohea dagoen lekuan agertzen denak, bihotza irudikatzen du, eta, bertzeak, arropa granatearekin kanporago dagoenak, burua. Buruak errealtatea jartzen digu muturren aurrean; bihotzak, aldiz, oraina bizi nahi du. Inpultsoak, pasioak eta behar afektiboak ditu. Haragizkoagoa da.

Preso dagoenak beharrianak ase nahi ditu, fisikoak, afektiboak eta kanpoko berri eta bizipenekin dituen hartu-emanekin lotutakoak. Bisitan doanak, berriz, ahalik eta hoberen pasa nahi du momentu hori, ez du hondatu nahi gauza txarrek. Barruko bihotzari denbora arin doakio; aldiz, buruak motxila bat darama. Eta barruko bikotea erratera ausartzen ez dena kanpokoak erraten du.

Buru-bihotzen jolas horretan nahasten hasten dira pertsonaiak, hori baita bizitza, bi argi horiek piztu eta itzaltzen ibiltzea. Hegan eramaten gaituena eta sokatik tiratzen duena, biak behar dira oreka lortzeko. Batzuetan, ez dira bat etortzen burua eta bihotza. Antzezlanean, momentu batean eztabaidan hasten dira bi mutilak, Mireni gauza bat nola kontatu erabakitzean. Adierazgarria da une batean bi neskek begiradarekin nola bat egiten duten ere. Bikotea bikoiztu egiten da, baina, aktoreek diotenez, «x8 edo x100 ere egin zitekeen». Oihartzunak dira.

Ziega batean ikusten ditugu laurak. Barrukoak ez dira ateratzen. Miren komu-



Aktoreak kalean, Gernika-Lumon, eta Lizeo Antzokiaren barruan, obraren atrezzo elementu nagusiaren, ohearen, gainean.
Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS - Itziar BASTARRIKA | LAUKA TEATROA

nera doa une batean, eta bisita bukatze-an ere ateratzen da, baina Aitor une oro barruan dago. Nazaret Froufe eta Eneko Sagardoy burua dira eta Joana Ocaña eta Urki Muguruza bihotza. Azaldu dutenez, banaketa ez da kasualitatea.

Xabier Erkiziak landutako soinu espazioan, esanguratsuak dira kartzelako hotsak, atea aditzen da zabaldu eta ixten, horma irudikatuz. Eta, lehen aipatutako kondairarekin lotuta, kontrapuntu ederra da itsasoaren doinua. Ziega itxia eta

Xabier Erkiziak landutako soinu espazioan, esanguratsuak dira kartzelako hotsak. «Chambre d’amour» kondaira erabiltzen da baliabide gisa eta horrekin lotuta kontrapuntu ederra da itsasoaren soinua

Antzerkiaren aldeko apustua egitera animatu dituzte herritarrak, bertzeak bertze freskoa eta atsegina delako. «Jendea ez badator aukera gutxiago izango dira ikusteko. Publikoak erantzukizuna dauka»

itsaso zabala, kontatzen ari direna itsaso bat delako ere bai.

Obran umore puntuak ere badaude. Hunkitzetik alai egotera igarotzen dira pertsonaiak, eta, beraiekin batera, ikusleak. Mutur batetik bertzero pasatzeko gaitasuna agertzen da eta horrek jendea harrrapatu egiten du. Maitasuna ez da sinesgarria dena barrea edo negarra bada.

Keinu polit batzuk ere egiten dizkiote publikoari, herri bakoitzera egokituz. Aitorrek lagun bat zer moduz dagoen galdetzen dio Mireni, eta honek «orain Amoroton bizi da» erantzuten dionean, «orduan gu baino inkomunikatuago dago», botatzen du mutilak. «Konektatzeko gertutasun zaplazteko bat ematen diezu eta engantxatzen dira», diote aktoreek.

Isiltasun pisutsu bat sentitu izan dute eta horrek pixka bat beldurtu edo urduritu ditu. Jendea hagitz sartuta egon den seinale. Bertzetan, lehen txistean irri al-gara handi bat aditzean, indarrak neurtu behar izan dituzte, komedia bihurtzeko arriskua dagoelako. Azken entseguan egin bezalakoa da antzezlanea, baina publikoa entzun behar da. Oreka bilatuz hemen ere, ezin direlako ikusleen hain menpeko izan.

LAU HANKATARA EDO LAU ESKUTARA

Aulestin, Artedramaren Euskal Antzerki Topaketetan ezagutu zuten elkar lau aktoreek, eta 2013ko udaberrian loratu zen Lauka Teatroa. «Jaioberrien antzera, lau hankatara edo lau eskutara goaz urratsak emanez, beraiek bezala bizitza esploratzeko grinaz eta kuriositatez». “Amodioaren ziega” da elkarlanaren lehen fruitua.

Manex Fuchsek ekarri zizkien testuak eta lau aktoreak jostatzen hasi ziren. Obra bera bosgarren elementu bat izan zela diote. «Testuak berak gu aukeratu gintuen edo guk testua, ez dakigu». Fuchsek lan hau elkarrekin egin behar zutela erran zien eta hala abiatu ziren. Ander Lipus taula zuzendaritzaz arduratu zen, Arantza Flores argiztapenaz eta teknikaz, Iker Nafta jantziez eta Itziar Bastarrika argazki eta bideoez. Diseinu grafikoa Nagore Txintxurreta eta Joana Ocañak egin zuten eskuz esku.

Muguruza zarauztarra da, Froufe berriztarra baina Durangon bizi da eta Ocaña eta Sagardoy durangarrak dira. Azken herri hori dute, beraz, topaleku normalean. II. Zubi proiektua irabazi zuten eta horri esker lan egin ahal izan dute «baldintza duinetan». Halere, «oinarria da» eman dietena, eta «gehiago behar da, gaur egun ez baitago erraztasun askorik sorkuntza prozesu bat martxan jartze-

ko». Ez dute aukera galdu nahi izan antzokiak «hain hutsik» ikusteak arduratu-ta dauzkala azaltzeko. Obra honekin aretoak betetzen ari dira, baina orokorrean ez da hori gertatzen. Jendeari eskatu nahi diote antzerkira joateko apustua egiteko, bertzeak bertze freskoa eta atsegina delako. «Jendea ez badator aukera gutxiago izango dira ikusteko. Publikoak erantzukizuna dauka».

“Amodioaren ziega” publiko guztiarentzat da, euskaldunei zuzendua. Otsailaren bukaeran estreinatu zuten eta hamahiru bolo egin dituzte lau hilabetetan. «Oso ondo dago». Gaiak sozialki indarra izateak zerikusia du horretan.

ISTORIA ZABALTZEA XEDE

«Antzerki sozialetik dator gure habiatxoa eta sentsibiltate edo ardura txiki bat badugu. Herri antzerkitik gatoz eta konpromiso bat daukagu», agertu dute, normalean, programatzen dena komedia dela kritikatzearekin batera. «Publikorik ez badator, non geratzen da istorioa?», galdetzen dute.

Xedea jendeak istorioa etxera eramatea da. «Hamar edo 200 ikusle egon, guk dena emango dugu, baina egia da zenbat eta pertsona gehiago etorri orduan eta gehiago zabalduko dela istorioa. Teatroak

Noiz arte irauten du maitasunak?
Zergatik besarkatzen dute elkar maitaleek? Nola aldatzen dira ametsak barruan eta kanpoan? Eta beldurrak? Maitasunaren haririk hauskorrenak eta indartsuenak agerian gelditzen dira amodioaren ziega honetan.
Itziar BASTARRIKA | LAUKA TEATROA

hori behar du», aldarrikatu dute. «Ez dakit galtzeko arriskuan dagoen animalia bihurtuko den antzerkia. Bizirauten gabiltza», azaldu du kezka Ocañak.

Animatzen denarentzat, honakoak dira oraingoz lotuta dituzten hitzorduak. Ekainaren 5ean, heldu den ostiralean, Elorrioren 7an, Oiartzunen, eta, 12an, Iurretan. Urriaren BAD Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdian antzeztuko dute obra.

Agurtu eta bazkaltzera doaz aktoreak. Ohe bat da beren atrezzoak eta horrek siestatxoa egiteko aukera emanen die agian. 17.00ak aldera beroketa egingen dute eta gero bakarka egoteko denbora hartuko dute. Berritro batu eta oholtzara aterako dira, «dena ematera». Emanaldiaren ondotik ere jarraituko dute. Afaldu, furgoneta kargatu eta etxerako bidea egin behar dute. Hurrengo egunean bukatuko da «boloa».



Hauteskundeak. Azala eta mamia

Xabier Mikel Errekondo

Hauteskundeak ez dira matematika, baina ia. Alderdi batek ateratako emaitzek ez diote kasualitateari erantzuten, baizik eta norberak egindakoari eta, gero eta gehiago, arerioek egindakoei ere. Maila guztietan egindakoa, oposiziotik ala gobernutik, zuzenean herritarrekin eta, batez ere, komunikabideetan. Ikasgaiak ugariak izan badira ere, hona bi argiak: bozka herritarrek dute ematen, ez herriak. Herritarren eguneroko beharrak herriarenaren aurretik daude. Bestalde, asmoak azaltzea, agindutakoak egitea eta egindakoak komunikatzea-saltzea ezinbestekoak dira, baina ez nahikoak herritarren gehiengoaren boz-

ka lortzeko. Jendartea pastel-mosaikoa da. Eta, «nolako» jendarte-zatia erakarri nahi den, preseski «halakoari» komunikatzeko prestatu behar dira lider, estilo, lehentasun eta mezuak. Nago pragmatikoagoa dela hori jendartea zure programara ekartzea baino. Kontua da, horretarako mosaikoaren zati bakoitzaren ezaugarriak ongi ezagutu behar direla; alegia, ikerketetan inbertitu eta ondoren taldearen helburu eta estrategiak ondorioetara moldatu, malgutu. Beraz, herritarren pertzepzioez ari gara, azalaz mamiaz baino gehiago. Ikuspegi sexual batetik esateko, kontua ez da zein neska edo mutil den ederrena baizik eta nor uste dugun dela ederrena.

Bartzelona munduko futbol talderik onena bada, ez da Messik eta enparauek beste inork baino joko ikusgarriago eta gol gehiago dituztelako sartzen, baizik eta beren irudia mundura saltzen asmatzen dutelako.

Katalanak aurretik doaz futbolearen ere, (gaur gauekoaren baimenarekin...) baina “Champions”-a jokatzera ausartzen den alderdi politikoak talderik onena osatu behar duela argi izan behar du, jokatzeko eta saltzeko bidea maila emateko.

Bitartean, bada kirolak iltzatu didan ikasgai betiketua: galduaz ikasten dela irabazten. Hori bai, ikasteak zentzua du noizbait aplikatzen bada... •



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



AUZO-ETXEA ERREZILEN

Alokairua ordaintzeko dirua ez den beste aukera batzuk ere badaudela erakutsi dute

 **JENDARTEA** / Aimar ETXEBERRIA KORTA

Emantzipazio behar batetik abiatuta, garai batean medikuarena zen etxea auzo-etxe bilakatu dute Izaro Zinkunegi eta Eneritz Arzallus erreizildarrek. Eraikina Udalarena izateak lagunduta, alokairua ordaintzeko eredu berri bat garatu dute: herria biziberritzeko egin dute lan, herritarren behar sozialei erantzunez.

Uruguai eta Mexiko arteko elkarrizketa batek piztu zuen proiektuaren lehenengo txinparta. Emantzipazio gose ziren bi gazteren arteko elkarrizketa izan zen, Errezilera itzultzean euren gurasoen etxeetara itzultzeko asmorik ez zuten bi

gazteren artekoa. Eta hirugarren bat gehitu zitzaion segituan. Honek ere denboraldia egina zuen itsasoz bestalde eta gurasoen etxetik kanpo bizitzen jarraitu nahi zuen. Segituan jarri zuten begia bere garaian herriko medikuarena izan zen etxean. Eraikina Udalarena izateak aukerak errazten zizkietela uste zuten, eta azken

Izaro Zinkunegi (ezkerrean) eta Eneritz Arzallus (eskuinean), auzo-etxearen proiektuaren protagonistak, etxea atzean dutela.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

bost urteetan hutsik egon izana aitzakia perfektua zen eurentzat, Errezil biziberritzea baitzuten helburu. Gainera, aurretik ere ezagutzen zuten eraikina, jaietan, adibidez, bertan gordezten baitute material guztia. Garai bertsuan, gazte teknika-ri bat kontratatu zuen Udalak. Berarekin harremanetan jarri eta buruan zuten ideia partekatu zuten harekin Izaro Zinkunegi eta Eneritz Arzallusek. Aukera errealtzat ikusi zuen honek, eta orduan izan zen ametsa errealtate bilaka zitekeela sinesten hasi ziren lehen unea. Auzo-etxe baten figura zeukaten buruan, filosofia bezala hartuta, antolatze modu baten gisa. «Herriarena den etxebizitz bat bezala ikusten dugu, bertan bizitzeko aukera izateaz gain herriari ekarpena egingo dion etxe bat bezala», adierazi dute Zinkunegi eta Arzallusek. Praktikan, eraikinaren zati bat





da egun herritarrentzat erabilgarri dena. Bestea euren etxebizitzari dagokion zatia da. Bertan bizitzearen truke, eraikinaren erabilera herritarren nahi eta beharretara uztera konprometitu dira gazteak.

HERRITARREKIN, HASIERATIK

Pasa den urteko maiatza eta ekaina bitartean garatu zuten auzo-etxearen proiektua Zinkunegi eta Arzallusek, eta uztailaren lehenengo asteetan aurkeztu zuten Errezilgo Udalean. Aurkeztu eta pare bat asteren buruan plenoan onartua izan zen, eta, ondoren, herritarren aurrean aurkeztu zuten. Bilkura

irekia egin zuten proiektuaren berri eman eta herritarren ekarpen eta iritziak jasotzeko, eta auzolanean ziren jada abuztuaren, eraikina etxebizitza bezala egoitzeko lanean.

«Herritarren partetik, ekarpenak baino gehiago, babesa jaso genuen, auzolanean parte hartzeko borondatea», adierazi du te gazteek, nahiz eta aitortu bateren batek baino gehiagok bi gazteren «amets» gisa hartu zuela kontua: «'Ongi, baina ea noraino iristen zareten' esaten ziguten». Herritarren aurrean egin zuten aurkezpenean bertan, baratze bat jartzeko asmoa zutela eta ondoren herrian egi-

Une oro herritarren parte hartze aktiboa izan dute helburu Zinkunegi eta Arzallusek. Irudian, proiektuaren aurkezpena egiteko herritarrekin eginiko bilkura. GAUR8

ten ziren bazkari edo afariak bertako produktuekin egingo zituztela esan zutenean, guztiak barrezka hasi zitzaizkiela gogoratzen dute. Ordutik, geldirik dute baratzearen proiektua.

Auzolan guztia zero zabor filosofiarekin garatu zuten, materialak berrerabiliz. Hala, oraino erabiltzeko moduan zeuden baina erretiratzekotan ziren hainbat material auzo-etxera eraman zituzten herritarrek, Zinkunegi eta Arzallusen etxebizitza berria atonduz.

Gazteen hasierako asmoa eraikinera ikasturte hasierarekin batera sartzeko bazen ere, teiatuaren egoera kaskarrak eta

horrek proiektua garatu ahal izateko beharrezkoak ziren hainbat kontraturen izenpetzea atzeratu izanak abendu arte luzatu zuen bertara bizitzera joateko aukera.

GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA

Auzo-etxearen proiektuaren helburu nagusia Errezilen biziberritze soziala da, mugimendua egotea herrian, ekintzak antolatzea. «Neurri batean egin da, baina ez dira bete itxaropen guztiak. Jendea proiektuaren parte sentitzea nahi genuen, baina jendea jasotzeko dago gehiago emateko baino», onartu dute gazteek. Hala ere, pozik di-

Herriko emakume eta umeein eginiko lanaz dira harro, batez ere, Zinkunegi eta Arzallus. Arantzen artean dituzte baratze ekologikoa eta denbora bankua martxan jarri ez izana

Eurek garatu dutena gazteen emantzipaziorako modu egoki bat izan daitekeela uste dute, diruz soberan ez diren gazteei alokairua beste modu batean ordaintzea ahalbidetzen zaielako

ra egindako lanarekin, herrian erreferentzia izatea lortu baitute. «Batez ere emakumeekin eta umeein egin dugu lan», diote.

Bada, ordea, nahi izan baina lortu ez duten kontu garrantzitsu bat: gazteen emantzipazioan sakontzea. Ez dute gazte gehiago proiektura gerturatzea lortu, baina jakitun dira horretarako baldintza gutxi ematen dituela Errezil bezalako herri txiki batek. «Hemen ez dago alokairuan bizitzeko ohiturarik. Jendea baserrian bizi ohi da, eta, adin batetik aurrera, kalera jais ten dira edo beste etxebizitza bat eraikitzen dute baserri zaharren alboan», azaldu dute. Bada, auzo-etxearen proiektuak emantzipatzea nahi duen gazte batentzat aproposa izaten jarraitzen duela uste dute. «Hona bizitzera etortzeko baldintza bakarra proiektuan parte hartzea da», azpimarratu dute.

Gaur arte egindakoa baloratzeko hainbat hartu-eman izan dituzte Udalarekin, baina baita herritarrekin ere. Balorazio moduko bat egin zuten pasa den urtarrilean, egin dena eta egin gabe geratzen dena aztertzeko. «Herritarrek ekarpen dezente egin zizkiguten, ekintzen inguruko proposamen zehatzak batez ere», azaldu dute Zinkunegi eta Arzallusek. Bilkura haren ondorio izan zen inauteriak Errezilgo Guraso Elkartearekin batera antolatu izana, baita Korrika 19ren baitan herrian antolatu ziren ekintzak ere.

PROIEKTUAREN ETORKIZUNA KOLOKAN

Sei hilabete igaro dira jada Zinkunegi eta Arzallus medikuarena zen etxean bizi direnetik, eta gutxi falta da proiektua onartu

zela urtebete egiteko. Inflexio puntu batean aurkitzen dira, beraz. Udalarekin egin zuten hitzarmenean urtebeteko epe mugajarri zuten proiektuaren etorkizunaz jarduteko. Zentzu horretan, aitortzen dute zalan tzak dituztela maila pertsonalean, eta horrek auzo-etxearen proiektua baldintzatzen duela, inor ez baita gerturatu proiektuarekin jarraitzeko asmoarekin. «Ez dugu erreleborik ikusten», diote atsekabez.

«Egia da gauza batzuk lortu direla, sare bat egin dela», aldarrikatu dute. Medikuetxea etxebizitza bezala izaten jarraitzearekin, ordea, zalan tzak dituzte, baina ez hainbeste proiektuarekin. Jakinaren gainean dira Udal Gobernu berriak apustu berezia egiten duela proiektuan, eta gustura dira alde horretatik.

«Guretzat izugarria izan da egindakoa ideia bururatu zitzai gun momentutik. Uruguaitik bueltatu eta ilusio bat zen, eta auzolanean harreman berri asko egin ditugu. Herriari ere hainbat ekarpen egin dizkiogu. Berezik emakumeen sarea lortu da», dio Zinkunegik. Arzallusek ere ildo beretik hitz egiten du: «Hasierako amets hartatik proiektua egikaritzea lortu izana bakarrik... Nik auzolana aipatuko nuke. Azpimarratzekoa da jendeak jarri zuen interesa eta borondatea».

Bestalde, harro agertzen dira gisa honetako proiektu bat Errezil bezalako herri txiki batean garatu izanagatik. «Errezilen gauza berriek beti atzerakoa ematen dute, eta gure proiektua errealitate bilakatu izana jada asko da; soilik jendeak esatea 'etxe horretan bi neska gazte zo-

ro bizi dira, amaren etxean bizitza baino gauza hobeagorik ez dutenak' asko da guretzat», aldarrikatu dute.

Badakite jendeari kosta egin zitzaiola hasieran proiektuaren nondik norakoa ulertzea, baina egoerak buelta handia eman duela uste dute. «Umek ere badakite gaur egun garai batean medikuarena zen etxean bi neska gazte bizi direla, eta, nahiz eta momentuan ulertu ez, etorkizunera begira eragina izan dezakeen zerbait da», adierazi dute. Hala nahiko lukete behintzat.

EGINDAKOA PROIEKTATU ASMOZ

Udalarekin egin zuten hitzarmenean zegoen beste puntu bat eginiko lana biltzea zen, ondoren dokumental formatuan proiektatu ahal izateko. Bada, «frustrazio» txiki bat dute arlo honekiko, ez baitute material nahiko bildu gisa honetako zerbait egin ahal izateko. Euren «frustrazio» handienak baratzearena eta dokumentalarena direla onartzen dute. «Irudiak hartzen hasi ginen, baina dokumental bat egiteko adina material ez daukagu...», azaldu dute.

Auzo-etxearen proiektua aurrera eramateaz gain, beste hamaika saltsetan murgilduta dauden bi gazte izateak denari nahi luketen bezala ez heltzea ekarri die. Dena den, eginiko lanak izan du oihartzunik inguruko herrietan. Adibidez, Azpeitiko Bizi! ekimeneko kideek interesa agertu dute euren proiektuarengan, eta Arzallusek hitzaldi bat eskaini zuen gazte txean; datozen egunetan beste mahai-inguru batean parte hartzekoa da, Beasainen; eta hedabide ezberdinetan ere elkarriketatuak izan dira... «Errezildik kanpo oihartzuna izan du kontuak», azpimarratu dute.

Hitzaldia Azpeitiko gaztetxean



«Navarrísima» baten gogoetak

Maidar Iantzi Goienetxe

Zerbaiten kontra elkartzea, zerbaiten alde beharrean (zerbaiten edo norbaiten), tristeia izan daiteke. Baina zerbait hori (edo norbait) kalte egiten ari bada, kendu egin behar da lehenengo, gero zerbait berria sortzeko. Zauritik tantaka-tantaka galduz goazen odola gelditu behar den gisan azala biziberritzeko, eta mamia.

Hauteskundero bezala, zenbaki, kolore eta sigla dantzari begirik kendu gabe egon ginen eta, lehenbiziko aldiz, ez ginen haserretu Nafarroarekin, lehenbiziko aldiz, harro sentitu ginen emaitzez. Orain arte beti Gipuzkoa aldera begiratzen genuen «inbidia» puntu batekin eta eurekin identifikatzen ginen gehiago. Bortziritako irla honetan, gipuzkoarrentzat nafar burugogorak eta nafarrentzat «giputxiak» izanik, badugu aukera hori, nahi dugunean batekoak ala bertzeakoak izatekoa. Baina, azken batean, beti gara nafarrak, «navarrísimo»-ak, UPNkoak bezala. Orain, inoiz baino gehiago.

Izan ere, azkenean ireki eta airezatuko dira Gobernuako leiho eta ateak! Zer ez ote da aterako bertatik, saguzarrak eta apoak lehenengo eta hortik aitzinera... 80 urte badira itxi usaina handitzen doala, gero eta itoago, gero eta itoago... Bertzerik ezagutu ez dugun zenbat belaunaldi garen konturatu naiz eta jada ez daudenek hartuko luketen pozaz oroitu naiz, poz horretaz poztu naiz, eta hemen gaudenoi zabaltzen zaigun aukeraz. Egunetik egunera errealagoa da, poliki eta izugarrizko euforiarik gabe gauzatzen ari da. Eta, hau idazteko unean behintzat, ez da bertze munduko zalapartarik erortzearen erregimenean, Nafarroa Alemania pre-naziarekin konparatu duen Yolanda Barcinaren adierazpenak salbu. Erori den seinale, agian. Erori, zerbait berria sortzeko. •



Gorka Zozaia
Kimikaria

Egon

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:

Au esperimentu bat da. Esperimentu bikoitza. Esperimentua niretzat lehenik eta behin, eta esperimentua zuretzat, irakurle, plazer baduzu.

Zutabe hau idazten dudanean, normalean, ero moduan aritzen naiz, Interneten datuak kontrastatzen, loturiko berriak gainbegiratzen, hamaika fitxa zabalik, sekula deskantsurik hartzen ez duen telefonoak bibratzen duen bakoitzean pantailan zer agertuko begirada txikiak albora botatzen, eta, gainera, irratia edo telebista «hondoko musikatxo» hori eskaintzen. Gaur ez. Sukaldeko mahaian jarri, ordenagailuaren wifia deskonektatu, eta leihoko bista eta erloju baten tiktak hotsa ditut kanpo-estimulu bakar.

Zuk, irakurle, ez duzu, noski, berbera egin beharrik. Nahikoa litzateke, egia esan, artikulua hasi eta buka jarraian irakurtzea. Bitartean telefonoari edo beste edozein estimuluri kasurik egin gabe. Ez da oso irakurketa luzea eta ez luke oso zaila izan behar, baina posible da amaitzerako sentsazio arraro bat izatea minutu (gutxi) hauek soilik gauza bat egiten emateagatik. Izan ere, aldi berean mila gauza egitearen aroan sartuta gara, eta, ohartzerako, egin eta egin, egoten ere ahazten ari zaigu. Gazteen artean modu nabarmenagoan ematen den arren, edozein garraiobidetan –baita oinez ere– lepoa makurtuta dabilen oro harrapatzen du moda berri honek. Orduro hogeit bat aldiz aldatzen omen dugu egiteko batetik bestera: irakurgai batetik argazki batera, bideo batetik lagunari mezutxoa idaztera... Kontua da zer baitetan ematen dugun dedikazioa arina izatea, ahalik eta zeregin gehien egiteko. Eta hala ibiltzen gara, egin eta egin, denetik egiten, aldi berean, baina, benetan, funtsean (edo funtsezko) ezer ere egin gabe.

Eta moda berri deitu diot fenomeno honi, baina ez da moda bat. Ez da uneko fenomeno estetiko bat, azaleko aldaketatxo batzuk eragiten dituen gaztetxo-en apeta bat. Esparru anitzetako ikerlariak gero eta gehiago kezkatzen dituen fenomeno da, aldaketa sakona eragiten ari dena dagoeneko, eta aurrera begira ilunez beteriko ortzimuga uzten

duena. Era berean, esan dezadan aurpegi anitz dituen fenomeno ere badela, hemen «pantailaren kultura» eragiten ari den irakurketa sakonerako gaitasun galerari erreparatu nahi badiot ere, horixe baita gaiaren inguruan irakurri dudana azkena, Tufts University AEBetako unibertsitateko Maryanne Wolf neurozientzialari kognitiboaren eskutik (saretik deskonektatuta jarraitzen dut, e? Aurrez harturiko apunteak dira! Zuk ere berdin jarraitzen baduzu, zorionak! Kar-kar). Wolfen aburuz, irakurketa digitala gure garuna kortozirkuitatzen ari da, irakurketa sakona, kritikoa eta analitikoa oztopatzeraino. Gure garuna plastikoa eta aldagarria da, eta, Wolfen ustez, bere garaian ahozko kulturatik idatzizkora eman zen moduko jauzi sakon baten aurrean aurki gaiteske. Orduan Sokrates berak egin bezala, gaur egun ere gaitzesten dugu heltzen ari den paradigma berria, ezagutza frogatu, aztertu eta barneratzeko desegokitzat jotzen dugulako. Ildo horretatik datoz ikerketa gehienak ere: kontzentrazio gaitasuna galtzen ari garela, informazioa hobe atxikitzen dugula testu bera paperean irakurritik pantailan baino, asko irakurtzen dugula baina soilik azaleko irakur-

ketak direla, modu sinplista eta zatikatuan pentsatzen dugula gero eta gehiago, ideia sakon eta konplexuak formulatzeko gaitasuna galtzen ari garela...

Zalantzarik gabe, nik ere bat egiten dut kezka horrekin. Nire inguruan eta nire buruan bertan ere pairatzen dut aldaketa azkar horren sakontasuna (dagoeneko azkazalei hozka ari naiz...). Baina egia da ere Sokratesen kezka erlatibizatu egin litezkeela egungo ikuspegitik; hots, paradigma berriarekin ere egongo dela ezagutza sakona, konplexua jasotzerik eta aztertzerik... Baina hori momentuz ezin dugu jakin. Aldiz, jakin badakigu, edo nik gutxienez oso argi dut, hobe pentsatzen dela unean uneko kontu arinekin, urgentziekin, arreta galdu gabe. Denbora hartuz, eta ez denborak gu harrapatuz. Eta bide batez, egiten dugun hori guztia dastatuz, galtzen utzi ordez bertatik edanez, disfrutatuz! Autobusean sartu eta sakelakoari ordez kanpoaldeari begiratzea, liburu bat irakurtzea, gelditzea, egotea... Ez dakit esperimentua nola joan zaizuen, ni behintzat bizirik atera naiz, doi-doi bada ere... Baina, benetan, atera tarte bat egin eta egin artean, eta egon, merezi du eta! •



Irakurketa digitala gure garuna kortozirkuitatzen ari da.

GAUR8

{ koaderno } Laura Mintegi

Hitza ez da delitu

Disidentzia arriskutsua da, pentsamendua arriskutsua da, kultura arriskutsua da. Esanekoa ez izatea jazarpenaz ordain daiteke, mehatxuaz, kartzelaz edo heriotzaz. Atzo amaitu zen PEN International-eko Idazle Jazarrien Aldeko Batzordeak (WIPC, Writers in Prison Committee), eta ICORN erakundeak (International Cities of Refuge Network) Amsterdamen antolatutako bilkura, zeinek 40 lurraldetako idazleak eta kazetariak batu dituen lelo baten pean: “Creative Resistance: Stories from the Edge of Freedom”.

Teresa Todak, PEN erakundearen bi aldeetan egoteak ematen duen perspektibatik, txunditurik utzi ditu entzuleak bere esperientzia kontatzean. Euskal PENeko zuzendaritzako kidea izatetik PEN kasu bat izatera pasatu zen; lurralde zanpatuetako kazetariak eta idazleak babestetik, nazioarteko erakundeak babestua izatera alegia.

Europako erdigunean bertan, demokraziaren bihotzean, gobernu ustez demokratik bategunak itxi, kazetariak torturatu, kartzelatu eta isilarazi nahi ditu, gobernuarekin disidenteak direlako aitzakiaz. Teresa Toda kalean dago jada, sei urteko zigor osoa espetxean bete ondoren, baina berak azaldu die mundu osoko kideei “Egin”-eko kasuagatik zigortutako beste pertsona batzuk oraindik ere kartzelan daudela, hala nola Jabier Salutregi egunkariaren zuzendaria eta Jexuxmari Zalakain Orain enpresako Kontseiluko kidea.

Kontatu du Todak maiatzaren 28an beste kazetari batek errenditu behar dituela kontuak Madrilgo Auzitegi Nazionallean, Iraitz Salegik alegia, zergatik eta bere lana egiteagatik. Beste hedabide askok bezalaxe, Salegik berak ere informatu zuen Ernai gazte antolakundeak 2013ko martxoan Urduñan antolatu zuela Gazte Danbada ekitaldi politikoa, non 7.000 lagun elkartu ziren. Ekitaldi publiko eta irekia izan zen eta horren berri eman zuten hedabide askok, baita Iraitz Salegik ere Topatu.info hedabide digitalean. Eta inputatu egin dute, haatik.

Amsterdamen aukera eduki dugu Zineb El Rhazoui emakume kazetariaren esperientzia entzuteko. “Charlie Hebdo” aldizkarian egiten zuen lan eta bizirik atera zen kasualitatez. Ordutik sasia bizi da, etxerik gabe, eta ez

du lo egiten leku berean egun asko segidan, polizia babesa eduki arren.

Galdetu zaionean ea non dagoen adierazpen askatasunaren muga, ea balioak edo tradizioa, sinesmenak edo errespetua izan daitezkeen muga, argi erantzun du: «Badago eskubide bat libre hitz egiteko, baina inon ez dago eskubiderik iraindua ez izateko».

Gauza bera esan zuen Nick Clegg Erresuma Batuko lehen ministrordeak eta gauza bera uste dugu PENkide gehienok:

«Egunaren amaieran eskubidea izan behar dugu hurkoa iraintzeko. Ez gara guztiz libreak besteak iraintzeko askatasuna ez badugu, eta, gainera, inork ez du iraindua ez izateko eskubidea gizarte demokratiko eta zabal batean».

Euskal PENek ere hausnartu nahi izan du adierazpen askatasunaz eta umorearen bidez egiten den kritika satirikoaz, eta hausnarketa horren emaitza da Amsterdame-

«Charlie Hebdo» aldizkarian lan egiten zuen eta bizirik ateratzea lortu zuen Zineb El Rhazouiren hitzetan, «badago eskubide bat libre hitz egiteko, baina inon ez dago eskubiderik iraindua ez izateko»

ra eraman duen “Basque Writing-11” aldizkaria, ingelesez (euskaraz ere topa daiteke bere webgunean, Euskalpen.eus).

“Charlie Hebdo”-ren aurkako erasoa eta euskal kazetariaren aurkakoa, ordea, ez dira gauza bera. Komikilari frantsesak hil nahi izan zituztenak bi gizon armatu izan ziren, «Ala handia da» eta «Profeta mendekatu dugu» oihukatuz tiroka sartu zirenak.

Euskal kazetariak erasotzen dituen, ordea, bere burua demokratizat duen gobernu bat da, eta Parisera joan zen gobernuburua bera ere “Charlie Hebdo”-ko hiltzaileak salatzen. Gobernuburu horrek Mozal Legea jarri du Estatuan eta, horren arabera, Estatu osoan ezarriko dira orain urte asko Euskal Herrian aplikatu diren jazarpen neurri berberak, Teresa Todak argi eta garbi, hainbat idazleren aurrean, azaldu duen bezala. •

«Bakoitzak bere bidea topatu behar du zinema egiteko»

Madril eta Zornotza artean bizi da Lara Izagirre (Zornotza, 1985). Aurki estreinatuko duen “Un otoño sin Berlín” pelikulari azken ukituak ematen ari da espainiar Estatuko hiriburuan, baina etxera ere sarri etorri ohi da, hemen baititu, besteak beste, bere laneko epizentroa, lagunak eta familia.

New Yorken eta Kuban zinemagintza ikasketak egin ostean bueltatu zen Euskal Herrira, duela urte batzuk, eta bertan sortu zuen Gariza Produksioak ekoiztetxea, atzerrian ikasitakoa praktikan jarri eta bere ibilbide profesionalari ekinez. Hainbat film labur egin ostean, bere lehen pelikula aurrera ateratzearen abenturaz hitz egin digu. Ez da samurra zinema egitea, baina behin sentitu zuen zinema egiteko beharra zuela, eta har horrek bizirik dirau bere baitan.

Leioan Ikus-Entzunezkoak ikasi zenituen. Ordurako argi zenuen zinemagintzan lan egin nahi zenuela?

Zinema betidanik asko gustatu izan zait, baina oso zail ikusten nuen zinemagile izateko aukera. Gaztetxoa zarenean planteatu ere ez duzu egiten, baina unibertsitatean konturatu nintzen zinemari eta bideoari loturiko ikasgaiak zirela nire gustukoenak. Karrerako hirugarren urtean Erromara joan nintzen Erasmus beka bati esker, eta hango unibertsitatean bertako zinemagileen lana ezagutzeko parada izan nuen. Zinemari buruz asko ikasi nuen bertan, eta konturatu nintzen bereziki gustatzen zitzaidala mundu hori. Etxera bueltan, karrerako laugarren maila egiten nuen bitartean, gidoigintzako ikastaro bat egin nuen eta Arkaitz Basterrarekin batera pelikula bat ere bai, Zornotzan bertan. Ez nuke jakingo esaten zehazki noiz izan zen, baina urte horietan uneren batean konturatu nintzen zinema egin nahi nuela.

Behin karrera bukatuta, New Yorkera joan zinen zure formakuntza osatzera. Zergatik New York?

Behin Ikus-Entzunezko karrera bukatuta, irudipena nuen ikasketak nahiko orokorrak izan zirela; gauza asko ikasi nituen unibertsitatean, baina zerbaite-tan espezializatu nahi nuela sentitu nuen. Erroman ezagututako lagun bat bisitatzera joan nintzen Miamira, eta, bide batez, New Yorkera joateko ere aprobetxatu nuen bidaia. Bertako zinema eskola ikustera joan nintzen, eta han nengoela zer-bait sentitu nuen barnean. Etxera bueltan, familiari komentatu nion bertan ikasi nahi nuela. Azken finean, egiaztatu nahi nuen zinema ote zen etorkizunean benetan egin nahi nuena, eta horretara joan nintzen New Yorkera. Zinema zuzendaritzari loturiko urtebete-ko ikastaro trinko bat egin nuen bertan.

Bertako zinema industria barru-barrutik ezagutzeko aukera ere izan zenuen.

Bai, azken finean, lan hau zer den ezagutu nahi nuen. Izan ere, gaztea zerenean lanaren mundua mitifikatu egiten duzu, baina probatu arte ez dakizu zer den benetan. New Yorken ofizioa ikasteko aukera izan nuen; hasieran, proiektu txikietan hasi nintzen lanean, baina geroago Disney etxearen film erraldoi batean lan egiteko aukera ere izan nuen, Nicholas Cage protagonista zuen “The Sorcerer’s Apprentice” filmean, hain zuzen. Egia esan, erdi txiripaz sortu zitzaidan aukera. Beste proiektu batean lanean nenbilela, ezagun batek esan zidan nire kualifikazio bereko norbait behar zutela pelikula baterako. Elkarrizketa egin nuen eta hartu egin ninduten. Egia esan, oso lan xumea zen, kamera departamentuan, hamargarren laguntzaile moduan, baina esperientzia polita izan zen han egotea.

Ameriketako Estatu Batuetako zinemagintzaren handitasunak ez zintuen harritu?

Ikaragarria iruditu zitzaidan. Horrelako pelikulak telebistan edo zineman ikusten nituenean, nola edo hala imajinatzen nuen zer egon zitekeen atzean, baina orain, horietako baten sorkuntza prozesua barrutik ezagutu dudanetik, are sinesgaitzagoa iruditzen zait dena. Pelikula hartan 500 pertsona inguru zeuden lanean, tartean nahiko jende garrantzitsua. 35 mm-ko bost kamerekin grabatu zen filma, sekulako aurrekontuarekin... Hemen guztiz pentsaezina da halakorik egin ahal izatea. Amerikar estilo tipikoko pelikula bat zen, ez oso nire gustukoa, egia esan. Nik ez nuen gidoia irakurri ere egin –pelikula ere ez dut ikusi, egia esateko–, eta, esango nuke, nire inguruan lanean zegoen inori ez zitzaiola filma gehiegi interesatzen. Masari zuzenduriko industria da hangoa, pelikulak txurroak lez egiten dira, eta diru asko mugitzen du mundu honek. Esperientzia moduan, oso ondo egon zen mundu hori gertutik ezagutzea. Ikasteko balio izan zidan, baina baita ere konturatzeko nik

ez nuela horrela lan egin nahi. Erakarri baino gehiago atzerakada eragin zidan, nolabait esateko; horrela lan egiteko zinema mota hori gustatu behar zaizu, eta, egia esan, ez da niri gehien gustatzen zaidan eta etorkizunean landu nahiko nukeen zinema eredua.

Mundu horretatik at, proiektu txikiagoetan ere aritu zinen.

Bai, pare bat film txikitan lan egin nuen aurrena, ekoizpen eta kamera departamentuetan, eta gero ekoiztetxe txiki batean hasi nintzen lanean. Askoz hobeto eta erosoago sentitu nintzen bertan. Egia esan, proiektu gehienak nahiko xumeak ziren, baina asko inplikatu ginen pelikula horiek aurrera ateratzeko, izan ere, benetan gustuko genituen proiektuak ziren. Mota honetako ekoiztetxe asko daude New Yorken, oso kreatiboak direnak eta gidoiak oso ondo lantzen dituztenak. Hor konturatu nintzen horrela lan egin nahi nuela, hau da, talde txikiagoetan, proiektu independente eta pertsonalagoetan.

Lan aukerak zenituela ikusita, New Yorken geratzeko modurik ez zenuen izan?

Pentsatu nuen, bai, baina zailtasun asko daude. Alde batetik, lanerako baimena eskuratzea ez da erraza. Baina bestelako zailtasunak ere badira, bertako bizi maila altua, adibidez. New York oso hiri garestia da, eta, horrez gain, konpetentzia handia dago eremu guztietan. Lan asko egin beharra dago, eta ez agian zuk benetan aritu nahi duzun horretan soilik, tokatzen zaizun guztian baizik. Eta, hala ere, alokairua ordaindu eta jateko baino ez zaizu iritsiko. Nire kasuan, guztira bi urte eta erdi egin nituen New Yorken, ikasten eta lanean. Zuzendari gisa lan egin nahi nuen, baina bestelako lanak ere egin behar izan nituen, telefonoa erantzun eta fotokopiak egin, adibidez. Hala ere, diru laguntzak aurkitzea, aktoreen *casting*-ak egitea eta bestelako lanak nolakoak ziren ere ikusi ahal izan nuen, eta balio izan zidan, noski. Baina askotan ikusten nuen nik egin nahi nuena oso urrun zegoela benetan egi-

LARA

IZAGIRRE

ZINEMAGILEA

Laster ikusiko du argia Lara Izagirre zinemagile bizkaitarraren lehen film luzeak: «Un otoño sin Berlín».

Julene Larrañaga



Argazkiak: Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

ten nuenetik, eta horrek neka-tzen zaitu azkenean. Askoz zailagoa da New Yorken zuzendaria izatea Zornotzan zuzendari izatea baino. Hori horrela, proiektu txikietatik apurka-apurka hasi nahi nuela erabaki nuen, eta hori etxean egitea errazagoa da. Gainera, banuen Euskal Herrira bueltatzeko gogoia ere.

Baina etxerako bidea hartu aurretik Kubara joan zinen...

Bai, Kuban badago zinema eskola bat nahiko ezaguna, San Antonio de los Bañosen, eta aktoreen zuzendaritzari loturiko sei asteko ikastaro bat egin nuen bertan. Alde hori sakondu nahi nuen, New Yorken ikasitakoa teknikoagoa izan baitzen. Kubako egonaldiak zinemagintzaren ikuspegi zabalagoa hartzeko balio izan zidan. Kuban zinema ulertzeko beste modu bat dute; zinema beste filosofia batekin egiten dute. Han ere egiten dituzte pelikula handiak, baina dirua ez da beti agintzen duena eta azken hitza duena. Elkarlanean eta dirurik gabe, baina dedikazioz eta maitasunez, peliku-

lak –eta pelikula onak gainera– egin daitezkeela irakatsi zidaten Kuban, eta New Yorken ikasitako guztia zalantzan jarri zidaten. Azken finean, New Yorkeko eta Kubako egonaldietatik ondorioztatu nuen ez dagoela zinema egiteko modu bakar bat, eta bakoitzak bere bidea topatu behar duela zinema egiteko.

Euskal Herrira bueltan, ekoiztetxe propioa sortu eta film laburrak egiten hasi zinen. Zein zailtasun aurkitu zenituen?

Etxera bueltan, aurrez aurre topo egin nuen gure errealitatearekin. Hemen ez dago hainbeste aukera, gure industria oso txikia delako. Baina, zorionez, Euskal Herrian zuzendari oso onak daude, ez agian pelikula handietan lanean, baina bai kalitate handiko proiektuetan. Nik hori baloratzen dut, eta horixe da nahi dudana: beste zinemagile euskaldun bat gehiago izatea, eta, produkzio txikietan bada ere, nire onena eman eta maite dudana egitea. Hala, atzerritik bueltan, Gariza Produkzioak ekoiztetxea sortu eta film labu-

rrak egiten hasi nintzen. Horrekin batera, herriz herri zinema ikastaroak ematen hasi nintzen, interesa zuen edonori zinemagintzari buruzko oinarritzko kontzeptuak irakasten.

Film laburrak egin izan dituzu. Ez duzu uste film laburrak gutxietsi egiten direla, edo behintzat ez direla behar beste baloratzen?

Bai, eta pena bat da. Jendeak ez die behar besteko garrantzirik ematen film laburrei. Askok uste du ez daukatela balio nahikorik, edo pelikula bat egin aurretiko trantsizio edo entsegu antzeko bat direla. Nik guztiz kontrakoa pentsatzen dut: uste dut oso formatu potentea eta balio handikoa dela, eta horrela baloratu behar litzateke. Euskal Herrian oso film labur onak egiten dira, nire ustez. Noski, egongo dira zuzendari batzuk pelikula baterako jauzia eman nahiko dutenak, edo ikasten ari direnak, baina beste batzuk ez; askok laburrak egiten dituzte eta kito, hori da egin nahi dutena. Arazoa da zailtasun asko daude-

la hortik bizi ahal izateko, eta beste mila gauza ere egin behar izaten direla.

Oro har, ez duzu uste errazegi kritikatzin direla pelikulak eta oso modu sinplean jartzen zaizkiela etiketak?

Zalantzarik gabe. Oso erraz esaten ditugu «ze pelikula txarra, ze kaka» eta horrelakoak. Baina, hein handi batean, hori gertatzen da jendeak ez dakielako zenbaterainokoa den pelikula baten atzean dagoen lana, hau txarra edo ona izan. Nik neuk imajinatzen nuen gutxi gorabehera pelikula baten atzean zegoen lana nolakoa izango zen, baina nire pelikula propioa egiten nabilenetik ez dut beste inoren lana gutxiesten.

Ni 2011n hasi nintzen “Un otoño sin Berlín” filmaren gidoia lantzen, eta orain ari gara pelikulari azken ukituak ematen, pentsa... Jendea harritu egiten da hori entzutean, aurpegia ere aldatzen dute askok. Jendeak uste du alfonbra gorria eta *glamour*-a direla zinema, eta guztiz kontrakoa da. Denbora eta jende

asko behar da pelikula bat aurrera ateratzeko; film bat egitea sekulako talde lana da. Horrez gain, lanarekiko maitasun ikaragarria dago sektorean. Zineman lanean gabiltzanok bestelako lanpostuetan baino ordu gehiago ematen ditugu lanean, baina asko gustatzen zaigu gure lana eta horrek konpentsatzen du ahalegina nolabait. Jakina, mundu guztiak egiten ditu akatsak, eta pelikula asko egongo dira oso txarrak, txarrak, erdipurdi-koak, edo, besterik gabe, jendearen gustukoak ez direnak, baina pelikula guztien atzean dagoen lana ezin da gutxietsi.

Zuk zeuk orain bukatzen ari zaren pelikularekin konprobatu izango duzu hori, ezta? Zer izan da gogorrena prozesu guztian zehar?

Egia esan, fase bakoitzean pentsatu izan dut huraxe zela lanik gogorrena. Gidoia lantzean, grabaketan, edizioan eta postprodukzioan, beti berdina pentsatu dut. Etopa bakoitza oso desberdina izan da, baina zailena, zuzendari moduan batik bat, denbora guztian norbere proiektuan sinestea izan da. Hori oso gogorra da. Hasieratik, gidoia idaztean eta ingurukoei iritzia galdetzean, era guztietako kritikak jaso ditzakezu, eta ez beti onak; horregatik, eduki behar duzu zure proiektuarekiko konfiantza konstante bat, eta ez da erraza une oro hori mantentzea, zure lanean etengabe sinestea.

Horrez gain, eta zuzendari moduan aurrenekoz aritzean, sentipen desberdinak eduki ditut. Nire lehen pelikula izaki, ez nuen nire burua zeregin honetan imajinatzen, ez behintzat dimentsio hauetan. Aurrez laburrak egin izan ditudanean, bospasei lagun baino ez gara aritu proiektu bakoitzean, aktore eta guzti sarritan. Batez ere grabaketan konturatu nintzen proiektu potolo baten aurrean nengoela. Pelikula txikia da, eta, hala ere, soilik filmaketa lanetan 50 bat lagun aritu gara lanean, estrak kontuan hartu gabe. Hainbeste jende zure esanetara dagoenean kontua aldatzen da. Erantzukizun handia

da, azken hitza beti delako zurea, eta horrek tentsio bat sortzen di-zu. Dena den, nahiko ondo mol-datu naizela uste dut, eta gauza asko ikasi ditut hurrengorako.

Zure herrian bertan, Zorno-tzan, grabatu zenuten pelikula. Nolakoa izan da esperientzia?

Hori izan da hartu dudan eraba-ki onenetarikoa, bai niretzat, bai proiektuarentzat eta baita herri-tarrentzat ere. Herrikideek ber-tatik bertara ikusi ahal izan dute film bat nola egiten den, eta ikusmira handia sortu zen he-rrian. Jasotako erantzuna eta ba-besa sekulakoa izan dira. Guzti-ra 500 herritar inguruk hartu dute parte estra bezala, eta gehiago ere aurkeztu ziren. Gaur egun, kaletik jendeak gera-tzen nau eta galdetzen didate ea pelikula noiz estreinatuko du-gun. Jendeari pribilegio bat iru-ditzen zaio filmean parte hartu izana, zoriontsu egin ditu ho-rrek. Eta niretzat ere pribilegio eta poz handia da nire lana egite hutsarekin jendea zoriontsu egin ahal izatea.

Bi urtez atzerrian egon ostean berriz ere etxera itzultzen den neska baten istorioa kontatzen du filmak. Kasualitatez ez zen ba New York eta Kuban ibiliko, ezta?

Kar-kar... Egia esan, ez nuen nahita egin, baina gidoia idaz-ten hasi nintzen garaian buelta-tu nintzen ni neu ere Zornotza-ra. Dena den, abiapuntu hori kenduta, beste denak zerikusi gutxi du nirekin. Are gehiago: filmean ez dago ia ekintza bakar bat ere nik neuk bizi izan dudanik. Badaude gauzatxoak, detai-leak, nire mundu ikuskera ere egon daiteke nolabait, baina ez da pelikula autobiografikoa.

Gaztelaniaz filmatu duzue fil-ma, baina gidoia euskaraz ere idatzi zenuen. Zergatik erabaki zenuen euskaraz ez egitea?

Gidoia gaztelaniaz idatzi nuen aurrena, eta gero itzuli nuen eus-karara. Baina, aktoreak bilatzen hasi nintzenean, ez nuen aterik itxi nahi izan hizkuntza zela-eta. Euskaraz lan egiten duten aktore onak daude gure herrian, baina



ez dira gehiegi ere. Gainera, nire iritziz, euskaraz egin nahi izanez gero, hobe da lehenengo aktore-engan pentsatzea, eta pertso-naiak eurentzako idaztea. Nik ho-rrela ikusten dut. Eta nik istorioa idatzi nuenean ez nuen inor bu-ruan. Gero, ezagutzen ditudan aktore euskaldunen artean pro-tagonistak zeintzuk izan zitezke-en pentsatzean, zalantzak izan nituen, eta zaila egin zitzaidan pertsonaia guztientzako euska-razko aktoreak aurkitzea. Or-duan, Espainiako aktoreetara jo-tzea eta filma gaztelaniaz egitea erabaki nuen azkenean. Hala ere, pena pixka bat eman dit pelikula euskaraz egin ez izanak.

Zein prozesutan zaudete orain? Noizko aurreikusten duzue es-treinaldia?

Postprodukzio fasean gabiltza, kolorea, soinua eta bestelako az-ken ukituak ematen. Nahi genu-ke dena bukatu uztaileako, ge-ro oporralditxo bat hartu eta estreinaldia udazkenean izateko –izenburua bera ere ondo dator sasoi horretarako–, baina hori ez dago erabat gure esku, bana-tzaileak eta bestelakoak sartzen

«2011n hasi nintzen ‘Un otoño sin Berlín’ filmaren gidoia lantzen, eta orain ari gara pelikulari azken ukituak ematen. Jendea harritu egiten da hori entzutean, askok uste duelako alfonbra gorria eta ‘glamour’-a direla zinema, eta guztiz kontrakoa da»

baitira jokoan. Lan potoloena bukatzean bestelako zereginak etorriko dira; lana mugitu be-harko da han eta hemen, jaial-dietan parte hartu... Hori ere au-rreko beste guztia bezain garrantzitsua da gaur egun. Hainbeste lan egin eta gero emaitza inork ikusten ez badu, pena bat da. Hori bai, ez dut us-te “Un otoño sin Berlín” publiko zabalarentzako film bat denik, nahiko ukitu independentea duela esango nuke.

Suposatzen dut Donostiako Zi-nemaldian estreinatu nahiko duzuela...

Bai, horretarako lanean ari gara, baina badakigu ez dela erraza. Azken finean, Donostiakoa na-zioarteko jaialdi bat da eta as-kok nahi dute bertan egon. Kali-tate maila altua da, eta horrela izan behar dela uste dut. Berta-ko lanak bultzatu eta babestea ondo dago, baina kalitatea ez da alboratu behar bertakoa babes-teko aitzakian. Zinemaldiaren mailari eutsi behar zaio, eta lan euskaldunek ahalegina egin be-har dute hor egoteko. Pasa den urtean lortu zen sekzio guztie-

tan pelikula euskaldunak ego-tea, eta hori oso ona da. Gu ere saiatuko gara, ea zortea dagoen!

Nola ikusten duzu, oro har, euskal zinemagintzaren pano-rama?

Egia esan, grabaketa prozesuan konturatu naiz Euskal Herrian zinemagintzan ari den jendea oso ona dela, sektorean profe-sionaltasun handia dagoela uste dut. Egoera ez da erraza, baina, orokorrean, esango nuke ondo ari garela lanean eta ari direla ateratzen proiektu interesga-rriak. Agian mundu honetan denbora gutxi daramadalako izango dut sentipen positibo hori, baina horrela ikusten dut.

Epe laburrera begira, baduzu beste proiekturik buruan?

Gogoia daukat formatuz aldatze-ko. Pelikula batek denbora eta inplikazio handia eskatzen du, eta orain bertan eskertuko nuke hurrengo proiektua arinagoa izatea. Adibidez, gustura egingo nuke dokumental bat. Dena den, espero dut hemendik urte ba-tzuetara beste pelikula bat egite-ko aukera izatea. Ikusi beharko.



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

IRUDI BETE KANPAINA, IRUDI BESTE IRAKURKETA

Hauteskunde kanpainen askorako eman ohi dute. Irudi sorta ederrak uzten dizkigute, baina, normalean, askorik esaten ez duten irudiak izan ohi dira. Jendaurreko -edo jenderik gabeko- mitinak nagusitzen dira, lortzen den -edo lortu nahi den- irudiak hedatu nahi den mezua baino garrantzi handiagoa hartzeraino. Hain da handia irudiari ematen zaion garrantzia, hauteslea irudi bakar batekin konbentzi daitekeen ustea nagusitzen dela. Esamoldeak dioen bezala, «irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du». Bada, hauteskunde lehian dabiltzan alderdiek hain dute irudiaren mendekotasuna, obsesio izatera pasatzen dela. Eta hori, askotan, euren aurka joaten da. Hori gertatu zaio PPri Bilbon. Leku oro bere hautagaien argazkiekin bete nahi izate horrek aurkako efektua eragin dio, argazkiko kasuan bezala. «Potolitos» dio kartelaren azpian kokatzen den metro irteerako seinaleak. Irakurketa ugarirako parada ematen duen hitza. Egin dezala bakoitzak berea. Aimar ETXEBERRIA

GAUR8



ireki gure leihoo



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Igitie, Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkarte

Dela lurra lortzeko zailtasunengatik dela nekazaritza lanak ez direlako erakargarrienak izaten gazteentzat, gaur egun zaila izaten da gazteak baserriratzeko ikustea. Arratiako eskualde bizkaitarrean badago salbuespen bat. Azken lauzpabost urteetan, baserritar gazte berriak instalatuz joan dira, guztiak ere planteamendu komun batekin: agroekologiatik elikadura burujabetzaren alde lan egitea. Hartara, lehendik ere ekoizpen ekologikoa egiten zuten beste baserritarrekin batu eta Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkarte sortu zuten 2012ko udaberrian.

BASERRITARREN ARTEKO ELKARLANA

Elkarri laguntzeko asmoarekin sortu zen Igitie. Arlo ezberdinetan kolaboratzea dute helburu nagusi: izan erosketa komunak egiteko, izan jakintzak partekatu eta arazo teknikoei irtenbideak emateko, merkatu-ratzean elkarri laguntzeko edota lan astunak egiteko auzolanak antolatzeko. Merkaturatzea lantzeko, maila ezberdinetan eragiten du Igitiek: kontsumo taldeen sorrera sustatuz, azokak antolatuz, eskola jantokien gaia landuz... Orokorrean, baserritar gazte hauek hiri eta herri handietan daukate kontsumo taldeak: Bilbo, Zornotza, Galdakao, Basauri...

Otzarak egiterako orduan produktu nagusiak barazkiak badira ere, bestelako ekoizpenak daukaten baserritarren jeneroa ere eskaintzen dute ortugileek (ogia, pasta...). Horrezaz gain, ortugileren batek produktu konkretu bat falta duenean, badaki beste ortugileengana jo dezakeela bere otzara osatzeko. Makineria eta azpiegiturak elkarbanatzeko plataforma ere bada elkarte. Gaur egun, eskualde osoko hamar baserritar inguru biltzen dira hilero-ko lehenengo astelehenean egiten dituzten asanbladetara. Azaltzen dutenez, Igitie ekoizleen elkarte da, baina batzuetan kontsumitzaileak ere inguruan izatea botatzen dute faltan.

Elkarteko kide batek aitortzen duenez, batzarretan baserritarrok daukaten beharrian konkretuek aritzen dira gehienbat, «eta hor kontsumitzaileak galduta ibiliko

lirateke. Baina konturatzen gara ekoizleok bakarrik ezin dugula gure mezua komunkatu, kontsumitzaileen laguntza behar dugu horretarako. Beste espazio batzuk sortzea da gure erronketako bat, non baserritarrek eta kontsumitzaileek elkarrekin lan egingo dugun. Saiatu izan gara, baina momentura arte ez dugu guk nahi beste oihartzuna lortu», adierazi dute norabide horretan.

Arratia mailan baserritar gehiago egoteke ere ahalegina egiten dute. Nekazaritza – eta abeltzaintza – lurri dagokien erabilpena ematea aldarrikatzen dute. «Denok irabaziko genuke horrekin. Institutuzioek lehenengo sektorea kontuan hartzea da nahi duguna. Hemen gaudela esateko ere sortu genuen Igitie».

AGROEKOLOGIA GIZARTERATU

Azpimarratzen dutenez, baserritarren asmoa ez da dirua irabaztea soilik, «paisaia mantentzea eta, ingurumena zainduz, jendea elikatzea helburu berdinarekin barruan daude. Argi dugu, baina, agroekologia Arratian egonkortzea gizarte osoaren lana dela».

Gizarteratzea gauza dadin, hitzaldiak, bideo emanaldiak, azokak eta bestelako ekitaldiak antolatzen dituzte urtero. Aitortzen dutenez, zaila da jendea erakartzea. «Agian jendea gureganaino ez hurbiltzearen arrazoia da ez dakigula nola egin. Dima (Bizkaia) azokan bai lortu dugu hori, oso era errazean gainera: inauterietako tostada txapelketa antolatu genuen, eta herriko nagusiak izan ziren epaimahaikideak. Udazkenean kalabaza lehiaketa ere antolatu genuen, eta oso arrakastatsua izan zen. Herritarren parte hartze zabala lortu genuen ekintza sinpleekin».

Antolatzen dituzten azokak aurrerapauso bat izan dira elkartearen jardura eta aldarrikapenak kaleratzeko. Saiakerak egin dituzte eskualdeko herri nagusietan, arrakasta maila ezberdinak lortuz. Argitzen dutenez, hiru urteko esperientziaren ondoren «azokak non funtzionatzen duten eta non ez esateko moduan gaude. Horrenbestez, etorkizun hurbilean Dima eta Lemoan bultzatuko ditugu, bi udalerrri hauetan jaso baitugu erantzunik positiboa, bai biztanleriaren partetik eta baita

gizarte eragileen partetik ere (eskola, udala, pertsona nagusien kolektiboa...). Kasu hauetan esan dezakegu, behintzat, azokak balio izan dutela baserritar eta herritarrek elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren inguruan batzeko», nabarmendu dute.

Bistakoa da proiektu kolektiboak gauzatzeko sortu zela Igitie. Momentu honetan, buru-belarri murgilduta daude baserrien bideragarritasunari lagunduko dion proiektu baten garapenean: kontserba begetarak egiteko azpiegitura baten finantzaketa kolektiborako kanpaina abiatuta daukate Interneten, www.goteo.org helbidean. Zeberiko Udalak (Bizkaia) abiatutako Nekazalgunea programaren baitan, udalerrian instalatu nahi diren baserritar berriei lurak eta etxebizitza alokairu duintan eskaintzeaz gain, kontserbak egiteko eraikina ere eskaintzen da.

Mota honetako azpiegitura bat hornitzeak suposatzen duen inbertsio handiei

aurre egin ahal izateko, Nekazalgunea programako baserritarrek eta Igitie elkarteek elkar hartu dute, eta finantzaketa kolektiborako kanpaina martxan jarri dute. ENEEK berak ere parte hartu du kanpaina honetan, izan ere, baserritar ekologikoei dauzkaten gabezien artean, kontserba ekologikoak egin ahal izateko azpiegituren gabezia da bat.

Zeberion prestatzen ari diren Maskilu Kontserbak egitasmoari esker, baserritarrek beraiei ekoizpena eraldatzeko aukera izango dute, izan bazkide moduan zein zerbitzua kontratatzen duen norbait bezala. Aurrerapauso garrantzitsua baserrien bideragarritasunarentzat eta eskualdearen elikadura subiranotasunarentzat.

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoen Kontseilua



Behin irabazten hasita beti nahi duzu gehiago, bizio baten modukoa da», kontatzen du Esther Lopezek (Hernani, 1974). Enegarren titulua altxa berri duen arren, bere ibilbideko hastapean zuen ilusio berbera mantentzen du: «Txapelketa bakoitza modu desberdinean bizitzen da, lan asko dago atzetik, eta bakoitzak bere esanahi propioa du. Niri beti irabaztea gustatzen zait, baita kartetan jokatzenean ere!». Irabazle sen hori mantentzea ezinbesteko baldintza da goi mailan irauteko.

40 urte ditu Lopezek, 22 urte daramatza boleibolean goi mailan lehiatzen baina oraindik ere maila ikaragarria du, sasoiko dago, eta ez du erretiro hitza entzun ere egin nahi: «Aspaldi egindako elkarriketa batean 32-34 urterekin erretiratuko nintzela esan nuen, baina oraindik ikaragarri gozatzen dut, fisikoki indartsu nago, nire buruari jartzen dizkiodan erronkak betetzen jarraitzen dut, eta, gainera, talde indartsuek nigan sinisten jarraitzen dute, beraz, lesioek errespetatzen nauten bitartean jokatzenean jarraituko dut».

Bere ibilbide loriatsua aintzat hartuta askok eta askok mito deitzen diote eta ez da gutxiagorako, izan ere, taldeka lortu dituen garaipen guztiez gain, bere jardunari dagozkion banakako sari garrantzitsuak ere eman dizkiote. Esaterako, 2004-2005 eta 2010-2011 denboraldietan Europako libero onena izendatu zuten eta 2008-2009an berriz, baloi jasotzaile onena. «Sari horiek balio ikaragarria dute niretzat, zer-nolako maila izan dudan erakusten dute eta».

BOLEIBOLAREN URREZKO AROA

Libero postuan jokatzenean du Lopezek, defentsan, alegia: «Guk ez dugu puntuatzen. Gurea defentsako lana da, baita baloiak jartzen dituztenei lana erraztea ere. Jende askok pentsatzen du erremateak soilik direla ikusgarriak, baina guk askotan erremate horiek jaso eta puntuak salbatzen ditugu, eta hori ere oso zaila eta erakargarria da».

Esther Lopezek Espainiako Ligako hamalau talde desberdinetan jokatu du eta epe horretan mota guztietako uneak bizitzeko parada izan du. Momenturik



Esther Lopezek gazterik alde egin zuen Hernanitik, 17 urte zituela Toledora abiatu baitzen boleibolean jokatzera.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

infraganti ESTHER LOPEZ

Esther Lopezek boleiboleko liga irabazi zuen duela aste batzuk Logroñoko Naturhouse taldearekin, eta, modu horretan, bere garaipen zerrenda izugarria are eta gehiago puztu du: 8 Liga, 7 Kopa, 5 Superkopa eta Europako Txapelketa bat irabazi ditu, 21 titulu orotara. Zenbakiak beren kabuz hitz egiten dute, eta, beraz, argi dago hernaniarra erreferente dela boleibolaren munduan.

gozoenak Tenerifeko Marichalen jokaturiko bost denboraldietan igaro zituen. Denboraldi horietan guztietan jokatu zuen Europako txapelketa nagusia, bi ediziotan hirugarren izan zen eta 2004an iritsi zen gailurrera garaikurra erdietsita: «Gau osoa lorik egin gabe pasa nuen. Domina begiratzen nuen eta ez nuen sinisten. Ez dakit nola azaldu, baina lasaitasuna eta bakera sentitzen nituen. Momentu hartan Europako onenak ginen; erraz esaten da. Hiru egun be-

har izan nituen nire onera bueltatzeko».

Garai hartan eraikuntza alorreko enpresek apustu sendoa egin zuten boleibolean, diru asko inbertituz. Hala, izar asko erakartzea lortu zuten eta Espainiako Liga Europako indartsuenetariko bat bilakatu zen: «Nik, besteak beste, Maurizio Cacciatore italiarrarekin jokatzeko aukera izan nuen Tenerifen. Europako jokalariek ezagunena zen Cacciatore eta horrek asko lagundu zigun. Aurretik ez zen jende asko etortzen gu ikustera eta Cacciatore iritsi zenetik harmaileak bete egiten ziren hura ikusteko. Partida garrantzitsuetan 5.000 pertsona inguru biltzen ziren, ikaragarria zen».

Emakumezkoen boleibola modan zegoen, gizonezkoenak baino oihartzun handiagoa zuen, hedabideetan lekua zuen, eta jokalariek zituzten baldintzak ere erabat desberdinak ziren: «Atzeritik etortzen ziren jokalariek sekulako dirutzak irabazten zituzten, eta etxeak eta beste gauza batzuk erosteko aukera izan zuten. 50.000-60.000 mila euro irabazten zituzten batzuek. Gu, ordea, bigarren maila

batean geratzen ginen eta ez genituen kantitate horiek irabazten inondik ere. Halere, langile duin batek bezainbeste kobratzen genuen eta ezin naiz kexatu, oso une onak ziren».

Orain ordea, egoerak 180 graduko itzulingurua jasan du eta boleiboletik bizitzeko ezinezkoa dela dio: «Askoz ere laguntza gutxiago jasotzen dituzte taldeek eta hori alor guzti-guztietan nabaritzen da: baliabideetan, soldatetan... Egun ez daukagu boleiboletik bizitzeko aukerarik eta bestelako lan bat edukitzea ezinbestekoa da aurrera egiteko. Gainera, kontuan eduki behar da guk Ligak irauten duen bitartean soilik –zortzi hilabete inguru– kobratzen dugula, kontratuak horrela egiten dizkigute eta».

EZUSTEAN BOLEIBOLEAN

Txikitatik izan da kirolzalea Lopez, baina, dena den, boleibolaren berri ez zuen izan 14 urte bete zituen arte. «Ikastolara boleibolaren gaineko hitzaldi bat ematera etorri zitzaizkigun, probatu egin nuen eta gustatu zitzaidan jarraitzea erabaki nuen». Hernaniko taldean eman

zituen bere lehenengo urratsak eta bere jokoak zur eta lur utzi zituen teknikariak hasieratik. Bere bilakaera ikaragarria izan zen; hiru urte besterik ez zituen behar izan Espainiako talde baten interesa piztu eta lehenengo eskaintza jasotzeko. «17 urte nituela neguko txapelketa bat jokatzera joan nintzen Hernanirekin, eta, nire ezustekorako, bertan eskaini nuen maila ikusita, Toledoko teknikarien eskaintza jaso nuen denboraldia han bukatzeko». Toledok Bigarren Mailan jokatzan zuen eta gozoki erakargarria zen Lopezentzat. Era berean, oso gaztetxoa izanik familiarengandik aldendu eta bizimodua erabat aldatzea suposatzen zuen horrek eta ez zen erabaki samurra izan. Halere, gurasoen babes osoa jaso zuen, nahiz eta haiei ere beldur pixka bat ematen zien. «Jabetzen ziren boleibolean ondo moldatzen nintzela eta probatzera animatu ninduten. Esaten zidaten gauzak gaizki atereaz gero beti nuela etxera bueltatzeko aukera. Momentu oro nigandik gertu sentitu nituen eta hori funtsekoa izan zen niretzat».

Toledo izan zen, beraz, Lopezen ibilbideko lehen geltokia. Ordutik hona, ordea, etengabe egokitu zaio maletak egitea, hamalau talde desberdinetan jokatu du eta: Ciudad Real, Gasteiz, Socuellamos, Avila, Burgos, Tenerife, Benidorm, Palma de Mallorca, Miranda de Ebro, Menorca, Haro eta Logroño.

Etzetik urruti eta bakarrik bizita, behar edo ohikoa dena baino lehenago heldu behar izan zuen Lopezek: «Gurasoekin bizi nintzenean etxean zerbait laguntzen nuen, baina kanpora joandakoan dena nik egin behar izaten nuen: janaria prestatu, arropa garbitu... Hasieran kosta egin zitzaidan, baina esperientzia horiek guztiak nire mesederako izan direla uste dut».

Kantitate handiak ez izanagatik dirua irabazten ere hasi zen, baina Lopezek beti izan du burua bere lekuan eta ez zuen diru hori txorakeriatan xahutzen. «Arduratsua izan naiz beti. Dirua irabazten hasi nintzenetik beti bidaltzen nuen zati bat



Hernaniarrak 22 urte daramatza jada goi mailan. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

etxera. Gu beti izan gara oso familia xumea, eta, nire amak nik haiei dirua bidaltzea nahi ez zuen arren, nik banekien nire gurasoek behar zutela, eta, nik, ahal nuenez, ekarpen hori egin nahi nuen. Finean gurasoak dira guri dena ematen digutenak».

ATZERRIAN EZ JOKATZEAREN ARANTZA

Momentu gozo asko bai, baina gazitik dastatzea ere egokitu zaio. Mallorcan lehen urtea jokatu ostean kontratua berritu eta beste urtebeterako sinatu zuen. Alabaina, Liga hasteko astebete falta zenean taldean lekuri ez zuela eta berarekin kontatzen ez zutela esan zioten bere ezustekorako. «Ezin nuen sinetsi, amesgaizto bat zela uste nuen. Gainera, ez zidaten inongo azalpenik eman eta telefona ere ez zidaten hartzen. Oso desatsegina izan zen». Txapelketa hastear zela eta talde guztiak itxita zeudela, egoera beltza zen guztiz. Halaber, bere

amari leuzemia diagnostikatu zioten eta momentu zailak bizi izan zituen. Kanaria Handitik eskaintza bat jaso zuen maila gorenean jarraitzeko, baina amaren egoera zela eta, koska bat behera egin eta Miranda Ebroko talde batera joatea erabaki zuen etxetik gertu egoteko.

Oro har, oso gustura dago boleibolean jarraitu duen ibilbidearekin eta bizi izan duen guztia ez lukeela ezeren truke aldatuko aitortzen du. Dena den, badu arantzatzko bat, atzerrian jokatu ez izana, hain zuzen. «Italiara eta Azerbaijanera joateko aukera izan nuen, baina beldurtu egin nintzen eta ez nuen adorerik izan pauso hori emateko. Bestalde, familiari oso lotuta egon naiz beti, pertsonalki ez ziren momenturik onenak eta hain urrutira joateak zalantzak sortzen zizkidan. Gero hizkuntzaren kontua ere hor dago, kultura eta ohiturak ere desberdi-

40 urteko hernaniarrak 22 urte daramatza dagoeneko boleibolean goi mailan lehiatzen eta Espainiako Ligako hamalau taldetan jokatu du. 21 titulu dauzka, baita bakarkako sari ugari ere

«17 urterekin neguko txapelketa bat jokatzera joan nintzen Hernanirekin, eta, nire ezustekorako, Toledoko teknikarien eskaintza jaso nuen denboraldia bertan bukatzeko»

gutxian sekulako garapena burututa. Hala, ospakizuna ere berezia izan zen. Jokalariak herrira iritsi zirenean traktorea eta atoa zituzten esperoan, bertara igo eta herriko plazara joateko herritarrengana: «Inoiz ez nuen modu horretan titulurik ospatu eta oso ondo pasatu genuen».

Murillon zituzten baldintzak, ordea, ez ziren aproposenak goi mailako kirolarientzat: «Neguan berogailua jartzeko ez genuen dirurik eta 5-6 gradurekin entrenatu behar izaten genuen, eta jasotzen genituen laguntzak ere oso urriak ziren». Testuinguru horretan, taldea Logroñora eramatea erabaki zuten aurrerapauso bat eman eta baldintzak hobetze aldera. «Kluba berbera da, presidentea, agintariak... baina lekuz aldatu gara. Halere, Murilloko jendearekin oso harreman ona izaten jarraitzen dugu». Bistan da aldaketak mesede egin diela, aurten ere Liga, Kopa eta Superkopa irabazi dituzte eta.

Orain, urte gogor baten ostean, merezitako oporrez gozatzan ari da Esther Lopez. Aste batzuk familiarekin Hernanin igaro ostean, taldekide batekin Brasilera joateko asmoa du. Han izan zen iragan urtean ere, eta, esperientzia ona izan zenez, errepikatze gogoz dago. Brasilen deskantsua eta boleibola uztartuko ditu. Udararen erregional mailako txapelketa bat jokatzan da han eta posible badu parte hartzea gustatuko litzaioke.

Hori bai, oporraldia amaituta itzuliko da hurrengo denboraldia prestatzera. Arestian aipatu moduan Naturhousen jarraitzea nahiko luke, baina hala izango den jakiteko itxaron egin behar. Ziurra dena da leku batean edo bestean jokatzan jarraituko dela, Lopezek oraindik ez baitu azken hitza esan boleibolean. •

Mikel IBARGOIE

nak dira eta aldaketa horietara egokitzeak beldurra ematen zidan. Momentu hartan ausart jokatu izan banu agian oraindik European jokatzan jarraituko nukeen, baina...»

LOGROÑO JARRAITZEKO NAHIA

Oraindik ere oso maila altuan diharduen arren, 40 urterekin atzerriko eskaintzak jasotzea oso zaila dela dio, adin horrekin lesioak izateko arriskua handiagoa delako eta taldeek normalean jokalaria gazteagoen aldeko apustua egiten dutelako. Egun, Logroñoko Naturhouse taldean jokatzan du eta gustura dagoenez han jarraitzea gustatuko litzaioke. Aurreko urtean iritsi zen taldera, nahiz eta orduan Murillon (Nafarroa) jokatzan zuten. Estreinako denboraldian Liga irabaztea lortu zuten. Lorpenak meritu ikaragarria zuen, izan ere, Murilloren hirugarren urtea zen maila gorenean, urte



Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria

Ask.fm eta gaztetxoak

**kasturte honetako deskubrimendu izan da Ask.fm. Bane-
kien existitzen zela. Baina ez
nuen uste gaztetxoek erabiliko
zutenik. Aipagarria da, halere,
adin bereko gaztetxoak izan
arren, herriaren edo inguruaren ara-
berakoa dela tresna honen erabile-
ra, Beasainen bere erabilera oso za-
baldua egon arren, Legazpin
ezagutu ere ez zutelako egiten, esa-
terako. Hortaz, lagunaren eta inguru so-
zialaren bitartez hasten dira, hasteko-
tan, tresna hau erabiltzen.**

Ask.fm sare sozial gisa sailka daite-
ke. Egun 70 milioi erabiltzaile ditu eta
bederatzi hizkuntzatan dago eskura-
garri, tartean gaztelania, frantsesa eta
ingeleza. Bere ezaugarri nagusia ano-
nimotasuna ahalbidetzen duela da.
Anonimotasuna: galderak egiteko,
ematen dizkiguten erantzunetan
“Atsegin dut” adierazteko eta baita
galderak jasotzeko ere. Galderak egite-
an, euren kontua aktibo mantentzen
dute, jarraitzaile gehiago lortzen di-
tuzte eta galdera gehiago jasotzen di-
tuzte bueltan. Gorpil zoroa.

Horren bila doaz gaztetxoak sare so-
zial honetan: anonimotasunaren bila.
Eta kurioa da, euren ingurukoei mo-
du anonimoan galderak egiteko baliat-
zen baitute. Zergatik bilatzen dute
anonimotasuna? Zer galdera mota
egin nahi dituzte? Zergatik ez dituzte
galdera horiek euren profiletik egiten,
eurak nor diren ezkatatu gabe? Anoni-
motasuna bilatze horrek, helburu ho-
rrek berak, nekez eraman gaitzake
tresna honen erabileraren onuretara.
Anonimotasuna bilatzen bada, aurpe-
gia emanez egin nahi ez den zerbait
egiteko delako, besterik gabe. Izan gra-
zia edo mina egiteko.

**Horregatik, hain zuzen, birritan kri-
tikatua eta salatua izan da Ask.fm,
mezu iraingarriak, pedofilia kasuak
eta, oro har, «ziberbullying»-erako
erabiltzen delako.** Erresuma Batuan,
David Cameron berak Ask.fm sare so-
ziala ixtea eskatu zuen, lau gaztetxok
bere buruaz beste egin eta gero. Lau
kasuetan, sare sozial horretan jasan-
dako erasoak hartu dituzte oinarri.

Cameronen eskariari erantzunez,
Ask.fm sare sozialak seguritate politi-
ka aldatu zuen: batetik, “salatu” bo-
toia aurrez baino nabarmenago jarritz;
eta, bestetik, kontua sortzerakoan
posta elektronikoko helbide bat eska-
tuz, erabiltzailearen IP helbidea lor-
tzeko helburuarekin. Edozein kasutan,
ez Ask.fm berak ez Amazonek (azken
honen zerbitzarietan funtzionatzen
du Ask.fm-ek) ez dute sare soziala ix-
teko erabakia aukera gisa ere aurrei-
kusi. Enpresak dira, ezin dugu ahaztu.
Zenbat axola ote zaie gaztetxoengan
sortzen duten ezinegona.

Ildo beretik, axola al zaie telefonia
operadoreei gaztetxoek smartpho-
neak nola erabiltzen dituzten? Zein da
euren helburu bakarra, negozioarekin
jarraitzea ez bada? Ez al dago marra
gorririk? Ez al zaie ezer exijitu behar
gaztetxoen osasunarekin jolasten du-
ten enpresei? Nortzuk dira honen guz-

tiaren arduradunak, instituzioak ez
badira?

**Ask.fm eta gisako sare sozialak ire-
kita mantentzeko erabakia beren ja-
been esku soilik uzteak amorratu
egiten nau. Anonimotasuna entrete-
nimenduarekin lotzen dute, jakina
denean Internet eta anonimotasuna
binomioa minari eskutik helduta da-
torrela.** Sare sozialen erabileran, oro
har, ez dut debekuaren alde egiten,
erabilera arduratsuaren alde baizik.
Eta erabilera arduratsua bermatzeko
irizpideetan jartzen dut indarra, bai
gaztetxoekin eta baita gurasoekin ere.
Eta anonimotasuna inoiz ez da erabi-
lera arduratsuaren parte izango. Hor-
taz, Ask.fm, zalantzarik gabe, salbues-
pen bat da eta ez dut, inola ere, bere
erabilera gomendatzen: gaztetxoaren
garapen sozial eta pertsonalean traba
besterik ez duelako egingo. •



Ask.fm sare sozial gisa sailka daiteke eta bere ezaugarri nagusia anonimotasuna da. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Enrique GUINEA | GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA. GUI-IV-046_10

GIZONEZKOAK ITSASOA DAUKA, EMAKUMEAK, BADIA

Argazki eder hau XX. mende hasieran jasotakoa da. Garai hartan, Bermeok 9.600 biztanle inguru zeuzkan eta arrantza zen bere ekonomiaren motorra. Kontserba-industria goraka hasia zen, eskabetxearena batez ere. Emakumeak pisu handia zeukan lan munduan; sarein jardunean, arraina saltzen, saskiak garraiatzen... eta, aldi berean, zaintza lanetan aritzen zen. Victor Hugok garbi asko ikusi zuen Euskal Herrira etorri zenean; «gizonezkoak itsasoa dauka, emakumeak, badia». Goiko irudia Enrique Guinea (1875-1944) gasteiztarrak egindakoa da. Argazkigintza zalea zen eta izen handiko aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak, "Novedades", "Blanco y Negro" eta "La Esfera" argitalpenetan, besteren artean. Zenbait sari ere jaso zituen bere lana goratuz. Guinearen lanak izaera dokumental nabarmena dauka: garaiko bizimoduaz gauza asko kontatzen dituzte bere argazkiek.

1,5€
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DAGOENeko

ZURE KIOSKOAN SALGAI



7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

